



uk

261. zenbakia / 2014ko azaroaren 19a



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure
artean!
euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorge Perez, Bittor Egurrola, Amando Llamas, K.Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Getxo
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara zerbitzua



Leioa
UDALA - AYUNTAMIENTO
Euskara Zerbitzua



Bermeo
UDALA
Euskara Zerbitzua



Erandioko Udala



Sopelako Udala



Erandioko Udala



Urdulizko Udala



Plentziako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TRATU TXARRREN
BIKTIMAK ARTATZEKO
EUSKO JAURLARITZAREN
TELEFONO ZENBAKIA:
900 940 111

HEZKUNTZA, LIZENTZIA POLITIKA,
ETIAKULTURA GALIA
Erandio Foru Aldundia - Gobierno Vasco
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Ministerio de Educación, Lingüística y Cultura



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA. K.Olate
5. IRUDIA. Getxoko Berbalagunen aurkezpena.
6. FACEGUK. Zer deritzozu gune publikoetan terrazak jartzeari?
7. LEHEN ETA ORAIN. Igeretxe (1965).
8. URIBITAKORA. Josu Gotzon Landeta Egurrola.
9. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. ELKARRIZKETA. Joseba Santxo Uriarte.
11. ERRETRATUA. Aingeru Larrabeiti.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Homa-irudiak Uribe Kostan.
28. ARGAZKIA. Anton Portu, Armintzako arrantzalea (1932).
30. BERBETAN. Gari.
34. FOTOGRAFIA. Endika Martinez Alboniga.
40. SAKONEAN. Iparra galdu gabe, Xabier Paya eta Odei Barroso.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Lekeitioko Euskal Zine Bilerak.
43. MUSIKA. Bilbo Hiria Pop Rock lehiaketako irabazleak.
44. LIBURUAK. Lizardi saria.
45. KIROLAK. Ander Mendiguren Nebreda.
47. EUSKARAetaERAKUNDEAK. Euskararen sustapena eskualdean.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Onddo eta galeper-arrutaz egindako mokadua.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Portu Zaharreko futbol taldea, 1946.
54. AITORMENAK. Maite Arroitauregi Aranburu.

Azala: Endika Martinez Alboniga

www.ukaldizkaria.biz



30 Gari
Berbetan
Udagoieneko Ostera egin zuen Garik Getxora, eta beragaz izan ginen atzoko eta gaurko kontuez berbetan.



11 Aingeru Larrabeiti
54 Maite Arroitauregi Aranburu

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

K.Olate

Iparra (bistatik) galdu gabe

Ipar Euskal Herriarekin zerikusia duten hiru ekitalditan izan naiz aste berean. Aste-artean Areetan Eneko Bidegainek ‘Iparra galdu gabe jardunaldien barruan eskaini zuen emanaldi mamitsuan. Orain ehun urte piztu eta lau urtez luzatu zen Lehen Mundu Gerrak Iparraldean izan zuen eraginaz mintzatu zitzaigun irakasle baionarra: 5324 izan ziren orduan bizia galdu zuten euskal herritarrek; hamar milatik gora, berriz, zaurituak. Heriotza eta samina ez ziren izan, baina, Gerra Handiak –horrela deitua izan baitzen hurrengo, are handiagoa, piztu zen arte– Iparraldean utzi zituen ondoren bakarrak: bete-betean nazio-erakuntzara emana zegoen Estatu frantsesak ondo profitatu zuen kanpoko etsaiaren aurkako guda Hexagonoko azken txokoan ere frantziar nazioarekiko atxikimendua indartzeko: horrela lortu zuen askotan eskuara baizik ez zekiten *morts pour la patrie* haien odola frantses berrien hazi emankor bihur zedin; eta horretan darrai, mende bat geroago, herri orotan memoriaren euskarri eta iruditeriaren pizgarri diren monumentuek erakusten dutenez.

Iparra galdu gabe jardunaldiekin jarraituz, Bidasoaren bi aldeen arteko alderaketaz aritu ziren ostegunen, Fadurako kafe-tegian, Xabi Paia eta Odei Barroso, hitz lauz zein bertsoz. Aurkezleak abiapuntu baikorra paratu zien arren –zubiak–, berehala jardunaren giderrak bere esku hartu zituen Paya algortarrak bi gizartearen arteko urruntasuna eta osagai komunaren eskasia erakusten zuen errebasoari ekin zion: han erabili ziren otordu eta ikuskizunaren ordu-tegiak, ostatuetakoa isiltasun eta burrunbak, erreferentzia partekaturik eza –Messi eta halakoak salbu–, hedabide espainol edo frantsesen hegemonia, komunikazio arazoak –tartean hizkuntzena– eta, okerrean, estereotipo arruntetik harago elkar ezagutze-



ko interes urria. Zazpi soinekoak oihaltzekoak badira ere (ondoriozta zitekeen) ez dute nabari, desberdinak izan baitira haiek atondu dituzten tindatzaile zein jostunak.

Baiona Ttipian izan nuen, larunbatean, asteko hirugarren hitzordua Iparraldearekin, Manu Robles-Arangiz fundazioak antolatutako jardunaldi baten karira. Txunditu ninduen, beste behin, hango militante sozial eta politikoen argitasun estrategikoak eta malgutasun taktikoak,

konbikzioen sakontasunak eta askotariko bidaideak biltzeko irekitasunak, lekuko partioen eta borroka globalen arteko dialektika aberasgarriak, jendearen kontzientziatze, antolakuntza eta ekimena sustatzen duen sen demokratiko zinezkoak.

Fadurakoak utzitako mingostasuna gozatuta itzuli nintzen Baionakotik. Eta Iparrari gehiago begiratu beharko geniola sinetsita, asko baitugu handik ikasteko eta elkarrekin egiteko. ○

gu geu

Aurrera! Egin, bizi, ospatu...

Zebra-bidearen erdian azaleko laguna; alboetako balizko arriskuen zelantzaiteko babesguneetik oinez. Erdian gelditzeak arriskua handiagotzea eragin liezaioke; atzera egitea, benetan, ez zukeen merezik. Aurrera bada! Gu geu ere hala gabilta: laster izango duzu aurrerabidearen aurrerapen bat... Bitartean, gure bihotzaren taupadak azkartzen doaz, sasoi honetan ohi den legez; horren eragile diren lekukoak, Euskararen Nazioarteko egunaren harira prestatutako hamaika ekitaldi, orriotan dituzu! Euskarak 365 egun ekimena aurtzen ere; laster azalduko dizugu... Eta betiko lemak; erabil ditzagun euskaraz bizitzeko bidezidor eta sastraka denak, galdu barik A8ko errepide-aukerak; errepide nazionalak ezustekoei eutsiz! Gure bideei jarraituz, eginez, gero eta gehiago euskaraz biziz, gero eta gogotsuago zer ospatu izan dezagun, gero eta biziago...

UK-ko lantaldea

***OHARRA: UK 260. zenbakiko 45. orrian agertutako mysurfwall-eko arduradunak eta elkarriketatutak ez dira anaiak; Asier Olea eta Angel Lizarraga dira. Barkatu, txarto ulertzea.**




ALGORTA, AZAROAREN 5EAN

Berbaz berba... / ...eta apurka-apurka, badoaz aurrera. Getxoko Berbalaguna egitasmoaren ikasurte hasierako aurkezpena egin zuten azaroaren 5ean, Algortako kultur etxean. Euskaraz berba egiteko aukera gutxi daukagu, erabilerak eskasa da gurean. Horregatik, hain zuzen ere, Berbalaguna proiektuak euskaraz berba egiteko eta hitz-jarioa edo etorria hobetzeko aukera ematen die euskara ikasleei, euskaldun berriei eta, oro har, euskaraz berba egin gura duen orori. Getxon, orain 18 urte abiatu zuen proiektua Bizarra Lepoan elkartek; gaur egun, 24 Berbalagun-talde daude. Irudian duzue ordezkariak ederra! ○ / Argazkia: Asier Menteak

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Zer deritzozu tabernekin gune publikoetan terrazak jartzeari?



o Algorta

Miguel Angel Mondina

> jubilatua

Plazak jendea bertan jolasteko dira. Tokiak berriztatzen dituzte, baina utz ditzagun lehen zeuden bezala: ondo. Aulkiek eta mahaiek tabernen ondoan egon behar dute, espazio publikoa okupatu barik, umeak jolas daitezzen.




o Algorta

Jon Irisarri

> ikaslea

Gero eta terraza gehiago dago uda-lerriko espazio publikoetan. Badirudi Getxoko Udalak ahalik eta gehien nahi dituela, horienatik kobratzeko eta aberas-teko. Dena den, berdina zait terrazak ego-tea, onuragarriak direlako tabernentzat. Baina muga bat jarri beharko da, dena okupa ez dezaten.



o Algorta

Markel Aginaga

> tabernaria

Ez dut uste txarra denik, baldin eta ordenatuta badaude. Esate baterako, San Nikolas enparantzan ondo jarrita daudela uste dut. Hala ere, ulergarria da Basagoiti kaleko egoeraz kexatzea, agian terrazek leku gutxi uzten dutelako oinezkoentzat.




o Algorta

Paul Laka

> langabea

Bere alde positiboak ditu, jendea biltzeko espazio moduan erabil daitezkeelako. Azken finean, kalean elkar ezagutzarako guneak izan daitezke. Baina egia da neurri eman behar direla baimenak. Kalea guztiona da, eta edozertarako izan beharko litzateke. Dena neurri, baina ez zait desegokia iruditzen.



o Erromo

Ane Lopez de Letona

> ikaslea

Tokiaren arabera... Ondo. Adib.: La Mona aldea gazteentzako topagune bat da guztiok elkartzeko; normalean gazte gehienak lonjetan egoten dira eta egue-netik domekara arte bertan biltzen gara. Bestalde, leku batzuetan aparkalekuak kendu dituzte terrazak jartzeko... Batzuetan Romon aparkatzea ezinezkoa dela jakinda.



o Algorta

Jorge Perales

> soinu teknikaria

Tabako legea ezarri zenetik tabernak gero eta terraza gehiago jartzen ari dira espazio publikoetan. Hala ere, positibotzat jotzen dut jendea erakartzen dutelako eta bizitasuna ematen diotelako herriari, mugimendua baitago. Batzuentzat onuragarria izango da, eta beste batzuentzat kaltegarria.



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / IGERETXE (GETXO), 1965

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > kale gorriko kanta



Leioa, 2014ko azaroa

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz

Testua: **Josu Gotzon Landeta**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Hona kale gorriko horma horren azala, hona irudiaren ilunpe eta itzala. Pentsa leike hau morroi kantaria dala, ala ahaztu guraren bisai naturala? Sudur azpian zer dau? Aho handi zabala, txori kabia ala Belengo portala?

2

Inoiz asmatu arren gogoan zerua, lar lohi surrealista da sarri mundua: zenbat infernu garrez jatorkun gudua, zein gatxa dan lortzea leku segurua. Begiak ixten doguz kentzeko apurua, bistatik galdu guran munduko enpagua.

3

Bizitzea da berez ekimen nekeza, maite dogunok aurrez dogulako ezetza; orduan nagusitzen da barruan kexa, baina gatxa hain latza dogunik ez pentsa. Garrasi egin daigun, elikatu ametsa, kantuz gabiltzan orok hor dogu babesa.


* Doinua: Oilarra Kukurruka



Ander Deuna eguna, azaroaren 30ean

ikus-entzunezkoen rallya > abenduak 6-8

Kameramatoia, Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen Rallyak 10. ekitaldia betedu. Izen-ematea azaroaren 28ra arte egongo da zabalik, eta rallya edo lehiaketa bera abenduaren 6tik 8ra izango da Durango-ko Azokako Irudienea ikus-entzunezkoen plazan. Taldeetan parte hartu behar da, eta taldekideek 18 eta 35 urte bitartekoak izan behar dute, osterara, hori bai, aktore lana egiteko ez dago adin-mugarik. Sariet



Info+: www.plentziatelebista.com

Ander Deuna eguna > Barrikan eta Sopelan

Sanandres eguna ospatuko dute, azaroaren 30ean, Sopelan eta Barrikan. Udal-erri bakoitzak bere baselizan egingo dio deunari gorazarrea. Barrikan hitzordua hilaren azken domekako 11:00etan da, Goierriko Ander Deuna baselizan: meza nagusiaren ostean, Aita Gotzon abesbatzak kantatuko du, gero bertso-saioa izango da; eta ordurako gose izango direnez, herri-hamaiketako izango da.

Sopeloztarrek ere ordu berean dute zita, 11:00etan irtengo da-eta kalejira udaletxetik Ander Deuna baselizaraino. Heltzean, 12:00etan izango da meza, eta 12:30ean Ohorezko aureskua eskainiko diote deunari, hamaiketakoagaz tripa bete baino lehenago. Ondoren, erromeria izango da sopeloztarrak dantzan jartzeko... ○

Info+: www.sopelaudala.org
www.barrika.eu



Izen-ematea zabalik azaroaren 28ra arte

grabazioa > Plentzia Telebistaren kanpaiak

Gabon zahar gaueko kanpaiak eta 12 mahats jatearen ohitura grabatuko du, bigarren urtez, Plentzia Telebistak. Urtezhargar-gauean emango duten saioa abenduaren 6an, zapatua, arrastiko 19:00etan grabatuko dute Astillero plazan, eta bertaratzeko gonbitea egin dute: “Iaz ehunka pertsona batu ginen eta aurten ere denon laguntza beharrezkoa da. Plentziako herriak eta Uribe Kostak bere kanpai propioak edu-

ki ahal izateko denon parte hartzea ezinbestekoa da”. Egun horretan “elegante jantzi-ta” eta “12 mahatsak ekartzea” gogoratu ostean, jakinarazi dutenez ekitaldia antolatzen ere lagun dakieke: “*kanpaiak prestatzeko taldea astelehetan 18:30ean telebistaren egoitzan batzen da. Gureak ez dira ohiko kanpaiak, eta gure baliabideak oso murrizak badira ere, jendearen parte hartzeaz eta imajinazioaz edozer dugu posible*”. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaia...




...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Joseba Santxo Uriarte > itzultzaile lanean

“Roald Dahlen ingelesezko lanak mesanotxean ditut, oso gustuko dut...”

Joseba Santxo Uriarte (Bilbo, 1962) 18 urte zituenetik Getxon bizi da; bertso-munduan aurpegi ezaguna, bertsoaz alboz jardun badu ere, oraingoan beren-beregi literatura izan du berbagai. Izan ere, Roald Dahl (1916–1990) idazle galestarra-ren *Errima errebeldeak* eta *Jira, Peli eta hirurok* (Zubia) lanak euskaraz argitaratu berri dira, lehena berrargitalpena da (eskolarako formatu txikian), bigarrena lehenengoz eman da euskaraz; bien itzultzaile Santxo. Aurrerantzean ere Dalhen lanak euskaratzen segitzea gustuko luke; eta sorkuntza aldetik, *Ditxosozko ditxolaria* (Zubia, 1995) lanaren bigarrena zor duenez, agian datorren urterako...



Denbora eta beste hainbat konturengatik, itzulpengintzan sorkuntzan baino barneratuago dabil

—Roald Dahlen lan bi plazaratu berri dituzue, horretarako arrazoiaren bat bada? —Urteurren bat dela-eta: Dahlen *Charlie eta txokolate-lantegia* obra oso ezaguna kaleratu zela 50 urte bete dira, eta Zubia argitaletxean pentsatu zen polita izango zela horren omenez titulu pare bat plazaratzea. —*Errima errebeldeak* ipuin klasikoen bertsio moderno eta errimatuak dira... —Lan honek ikaragarri motibatu nau: batetik, literatura mailan, Dahlek fantasia ikaragarri ondo darabil, maisu da; bestetik, ironia darabil, eta gero umeen eta helduen plano biak nahasten dituenean oso genero indartsua sortzen da! Gainera, bertsoan egotea, plus bat da... Errima zalea da Dahl, hemengoa balitz bertsozale! Transposizio bat egin dut, Dahlen errimak ausartu naiz zortzikora ekartzen, kanta daitezkeelako zortziko txikian lasai asko. —Irakurlearen esku uzten duzu irakurtzea, kantatzea edo rapeatzea... Doinua?

—Irakurlearen esku uzten dut. Zorionez zortziko txikiaren doinuak hainbat dauzkagu; Bertsozale elkartearen webguneko doinutegian gura dena aukeratu... Eta rapeatzeko aukera badago, oso egokia delako 7-6 / 7-6 hori. Ikastola batzuetan proba egin dut, eta ikaragarri gustatzen zaie. —Bigarrena, *Jira, Peli eta hirurok* erron-

“Gozokientzat Dahlek hainbat izen asmatu egin zituen, hitz elkartu luze-adierazkorrak... Horiek euskaratzea... latza, baina oso polita!”

ka zail eta erakargarria izan dela diozu. —Istorioa hitz lauz, prosan, kontatuta dago, bertso batzuk trukatzeko dira... Eta irudimen ikaragarria, fantasia, dago hemen ere. Pertsonajetxo bat dago, Gilen deitu diot, eta animaliatxo batzuk Jira(fa), Peli(kanoa) eta hirugarrena tximino bat da, Tximi deitu diot. Animaliatxook kristal-

garbitzaileen enpresa sortu dute, gure Gilekin alkartu dira... Mutiko honen ametsa karamelu edo gozoki-denda jartzea zen. Gozokientzat Dahlek hainbat izen asmatu egiten ditu, hitz elkartu ponposo, luze, adierazkorrak. Horiek euskaratu?! Erronka latza izan da, baina oso polita! Oso gustura lotu naiz; uste dut txunkun lotu

dela, haur eta gazteek gozatzeko moduan. —Biak ingelesetik itzuli dituzu, ezta? —Aitortu behar dut Dahlen ingelesezko lanak mesanotxean dauzkadala, oso gustuko dut; oso ingelesez ederra darabil, oso joria eta jostaria; plazera da! Lana ematen du, morroiak badakielako idazten, baina esker oneko lana da! ○



“Tiragoma bategaz min handia eragin daiteke”

Aingeru Larrabeiti > tiragoma-txapelduna

Bihurrikeriak egiteko erreminta izan da beti tiragoma, ume eta ez horren umeek sarri erabilitakoa. Gaur egun ez dira horrenbeste ikusten, baina oraindino baditu jarraitzaileak. Aingeru Larrabeiti gorliztarak, barbarako, Espainiar Estatuko tiragoma-txapelketa irabazi berri du, bigarrennez: “*Albecetera irabazteko gogoz jaitsi naiz... eta uste baino hobeto urten da!*”. 11 zentimetroko hamar plater jaurti zituzten, eta 9 zentimetroko beste hamar. Aingeruk denak apurtu zituen: “*Garrantzitsuena lasai egotea da, hori da gakoa*”. Tiragomarekiko zaletasuna orain bost urte heldu zitzaion, senarrak kutsatuta: “*Aurretik ez nuen inoiz tiragoma bat esku artean izan! Hori bai, jaietako txinbera-postuetan nahiko ondo moldatzen nintzen*”. Hasi eta berehala Euskadiko txapelketa ikustera joan zen Barakaldora. Azken momentuan parte hartzera animatu, eta hirugarren lotu zen: “*Probatzen hasi nintzen eta azkenean tiragomak barrapatu nau*”. Lehiatzeko gogoa badu ere, ez du denbora askorik entrenatzeko: “*Entrenamenduak Mungian dudan ortuan egiten ditut*”. Ezagunek txantxatzen hartzen dute batzuetan bere zaletasuna, baina... broma gutxi tiragomagaz: “*Tiragoma bategaz min handia eragin daiteke. Guk altzairuzko bolatxoak erabiltzen ditugu, beraz... kontuz!*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Udaltzainakaz euskaraz BIZI

Getxoko 30 udaltzainek **Nahi baduzu euskaraz** enblema eroango dute aldean, **herritarrakaz** euskararen **erabilera bultzatu** asmoz; **BIZI** egitasmoaren **baitan kokatzen da** ekimen barri hau

Nahi baduzu euskaraz pegatina eroango dute 30 udaltzainek beren uniformeetan, herritarrak euskaraz ere artatu ahal dituztela agertzeko. Ekimena BIZI egitasmoaren barruan kokatzen da. Getxoko Udalak abiatu du, hainbat udaltzainek “**beren eginbeharrak euskaraz ere egiteko agertutako interesari eta nahiari erantzuteko**”.

“**Getxoko** biztanleen herena euskalduna da, beste heren bat euskara ulertzeko gai da eta euskararen harrera soziala handia da; erabilera, ordea, oso baxua da”; horregatik, herritarrek udaltzainakaz euskaraz egin dezaketela adierazteko 30 udaltzainek *Nahi baduzu euskaraz* leloa darioan pegatina eroango dute aldean, BIZI egitasmoaren baitan. Keltse Eiguren Alberdi Udaltzaingoko zinegotzi arduradunak jakinarazi duenez, herritarrakaz harreman zuzena eta ohikoa daukaten polizientzako pentsatu da egitasmoa hau da, euskaraz egiteko gaitasuna izan eta prest dauden patruiletako udaltzainek: “*Horien erdia herritarrak euskaraz artatzeko gai da eta, horietatik, %68 animatu da zerbitzua eskaintzera*”.

Azaldu duenez, Administrazioak “*ahalegin handia*” egin du prestatutako langileez hornitzeko, baina euskararen erabilera erakundeekiko harremanetan “*oso txikia da*”, kasu honetan Udaltzaingoagaz.

Horrenbestez, euskaraz hitz egin gura duten pertsonen polizia-agentekaz ere horrela egin dezaten gura du Udalak: “*Ad-*



Uniformean eroango dute pegatina poliziek, *Nahi baduzu euskaraz* leloagaz

ministrazio-herritarren arteko harremanetan euskara sustatu gura badugu, oso lagungarria da administrazioaren aldetik jakinaraztea euskara erabiltzeko nork daukan gaitasuna eta asmoa”. Polizia administrazioaren parte den heinean, oraingoan *Nahi baduzu euskaraz* leloan egikaritu da asmo hori.

“Ekimenak herritarren eskubide bati erantzuten dio: aukeratu duten hizkuntza erabili ahal izatea”

Keltse Eigurenek argitu du enblema ez darioen poliziek zein gainontzeko administrazioko langileek ere parte hartu ahaliko dutela egitasmoan, baina kasu horietan “*ezaugarri desberdinak izango ditu programak, langile horiek administrazio-*

barruko zereginak garatzen dituztelako”.

Gainera, aurreikusitako egitasmoak hasierako helburua beteko duela: herritarrei zerbitzu hobea ematea. Izan ere, “*herritarren eskubide bati*” erantzuten dio: “*aukeratu duten hizkuntza erabili ahal izatea*” udal-langileakaz. Eta are “*arrakastatsuago*” litzateke “*lortuko bagenu poliziekiko erabileratasa kaleko erabilerari hurbiltzea: hizkuntzaren erabilera normalizatuagoa adieraziko luke*”.

Udalak argitu gura izan du enblemen erabilera euskara erabiltzeko bide bat eta gonbidapen bat dela, eta bere menpeko zerbitzu gehiagotan zabaltzen joango dela: “*Gura genuke herritarrek enbidoa jasotzea eta guztion artean euskara gure arteko komunikazio-hizkuntza ere bihurtzea*”. ○

Info+: www.getxo.net

Oraingoan, komikiak

Azaroaren 21etik 23ra egingo da Azoka, Areetan



Aurten 60 bat postu izango ditu Azokak

Komiki Azokaren txanda heldu da: azaroaren 21, 22 eta 23an egingo da, Areetako Geltokia plazako karpan. Aurten 60 salmenta postu inguru egongo da eta horietan izango dira bederatzigarren arteagaz lotutako sektore danak. Era berean, jarduera ugari izango da: proiektzioak, mahainguruak, aurkezpenak, e.a.

Ohikoa denez, egile ospetsu askok beren lanak sinatuko dituzte eta berbaldietan parte hartuko dute, zaleek beren autore gustukoenak zuzenean ezagutu ahal izateko. Gainera, Azokak omenaldia egingo dio Jordi Bernet Torpedo sailaren ilustratzaileari (nazioartean ospetsua). Halaber, Ikastolen Elkartek bultzatutako Xabiroi aldizkaria ere omenduko du, “*euskarazko istoriotxoak hedatzeagatik*”. Bernetek ere parte hartuko du Azokako jardueretan,

Kevin O'Neill ilustratzaile britainiarrak legez: *The League of Extraordinary Gentlemen* sagaren egile-kidea da.

Erakusketei dagokienez, badago zer ikusi. Karparen barruan, *Mafalda: 50 urte* (Quino), *Bella muerte* (Emma Rios), *Blanca Rosita Barcelona* (Miguel Gallardo) eta *Joanes or the basque whaler* (Guillermo Zubiaga); Bizkaiko Zubian, *Alvaroscopio* (Alvarortega); Glass kafetegian, *Jaligrafia* (Jali); Jai Alai tabernan, *Fango* (Jon Suarez); eta Gobela kiroldegian, *10 arrazoi bidezko produktua kontsumitzeko*.

Esatea zine-kluba Azokari moldatu zaiola: *Neuroworld* proiektatuko dute 21ean, musika eskolan. Gainera, zurrumurruen kontrako estrategiaren barruan, komiki tailerra garatzen ari dira. ○

Info+: www.salondelcomicdegetxo.net

AURTEN ERE EROS DEZAKEZU GETXOBONOA

Abenduaren 10era arte salduko dira Getxobonoak. Gabonak baino lehen 1.200 bono jarriko dira salgai: 40 euroan erosiko dira, baina erosketetarako benetako balioa 50 eurokoa da. Beraz, 10 euro aurreztu ahalko dira kanpainari atxikitutako edozein enpresatan gastatuz gero. Bonoak Kutxabank-en kutxazainetan eskura daitezke eta Enpresa parte-hartzaileen zerrenda kontsulta daitezke www.getxo.net eta www.getxoenpresa.com guneetan. Ekimenaren bigarren edizioa da, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresen jarduera sustatzea helburu.

AUZOZ AUZO

Romoko Kresaltsu kaleko espaloiak zabaldu eta errazago ibiltzea hobetzeko, Santa Eugeniako jolas-gunean estaldura ipintzeko eta Txabarri Zuazo parkeko kirol guneko instalazioak eta ekipamendua hobetzeko 432.315 euro baino gehiago inbertituko ditu Udalak. Getxo Auzoz Auzo programan egindako iradokizunak batu ostean, lehentasuna emon die horiei Udalak, Romon garatuko dituen jardueren artean. Auzokideen 652 iradokizun batu ditu Udalak, “*oso desberdinak*”, berbarako, trafikoa, errepideak, espaloiak eta aparkalekuakaz zerikusia dutenak.

Info+: www.getxo.net

ALDUNDIAREN LAGUNTZA AQUARIUMI

Datozen lau urteetan Ingurumeneko Foru Sailak ekarpenak egingo ditu Getxo Aquarium-en mantentze-lanetarako, guztira 955.005 euro. Foru Aldundiak eta Udalak 2006an sinatu zuten hitzarmenetik eratorzen da akordio barria, eta Iraunkortasunean Oinarritutako Ekintza Egitasmoaren barruko jarduera bat da. Sailaren barruan antzeko jarduerak daude: Bizkaia 21en webgunea, Activate + programa, Bizkaia Maitea aldizkaria, Urdaibai Bird Centre, garapen iraunkorrari eta ingurumen-hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra, e.a.

Info+: www.getxo.net



GARAIZAR BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

Aixerrotako ikasle-taldea > Pinilla Proiektuko sustatzaileak

“Jendeak Ramiro Pinillaren liburuak irakurtzea nahi dugu; omenaldia edo egiten ari gara”



Aixerrota institutuko Pinilla Proiektuaren sustatzaile-taldea

Maitane Espina, Manuela Cortina, Begoña Sustatxa, Garazi Torrealdai, Kerman de Frutos, Ander Angel, Naroa Etxeandia, Beñat Arozena, Irati Tobalina, Iratxe Astiza, Irune Mota, Leire Reina eta Unai Alkizak, Aixerrota Batxilergoko 13 ikasleok Pinilla Proiektua dute martxan. Zendu berri den idazle getxoztarraren obra eta ibilbidea ezagutaraztea dute helburu, eta ikasleon asmoa gauzatzeko, besteak beste, *Twitter* bidez Pinillaren *Aquella edad inolvidable* laneko (edo beste bateko) gogoko esaldiak edo gogoetak txiokatzea proposatu dute...

—Zelan sortu da egitasmoa? Non eta zelan jaio da ideia?
—Aixerrota institutuko batxilergoko 13 ikasle gara, eta gure egitasmoa Proyecto Pinilla deitzen da, nahiz eta *Twitter*-en *#EfectoPinilla* izenez ezagutu. Lenguako irakasleak kurtsoan zehar hainbat lan proposatu zigun, eta guk Ramiro Pinillarena aukeratu genuen, zeren eta iruditzen zaigu autore getxoztarra izanda, eta nahiko nagusia zenez, ondo legokeela jendeak bere obra irakurtzea. Gainera, hau martxan jarri eta gero, hil egin zen... Orduan,

orain egiten ari garena berari omenaldi bezalakoa dela iruditzen zaigu. Berari el-karrizketa bat egiteko asmoa genuen, baina ezin izan dugunez, orain gaude omenaldi bat egiten edo...
—Pinillaren gura izan duzuen edozein lan jorratu duzue, ala lan jakin bat aukeratu duzue proiektu honetarako?
—Pasa den urteko batxilergoko ikasle batzuek ere berari buruzko proiektu bat egin zuten, eta liburu bat aukeratu zuten; baina, Ramirok esan zien, hurrengo urtean proiektua berriro aterako balitz, berak

Aquella edad inolvidable aukeratzea nahiko zukeela. Futbolari buruzkoa da, batez ere San Mames eta Bilbo aipatzen ditu asko, eta esan zuen batez ere mutilei gustatuko zitzaieela... Baina, guri ere, irakurri dugun neskei ere gustatu zaigu, oso ondo dago; gainera, Ramiroren hainbat gogoeta ere agertzen dira lan honetan... Oso polita da.

«*Aquella edad inolvidable*-ko gogoko esaldia txiokatu *#EfectoPinilla* erabiliz»

—Orduan, zer da proposatzen duzuenaz?
—Gu ari gara orain pixka bat promozionatzen liburuak, eta aldi berean... Guk nahi duguna da jendeak Ramiroren liburuak irakurtzea, batez ere *Aquella edad inolvidable*, eta politak edo interesgarriak iruditzen zaizkien esaldiak-eta *Twitter*-en jartzea, hashtag edo traola (#) eta EfectoPinilla erabiliz: *#EfectoPinilla*, eta horrekin batera txiokatzea gogoko esaldi horiek. Hala, jendeak Ramiroren esaldiak irakurriko ditu. Bestalde, *Twitter*-eko kontuaz gainera, ez gabilta hori bakarrik egiten, adibidez: Getxon, eta Sopela, Berango eta inguruko beste leku batzuetan kartelak jartzea pentsatuta daukagu, horietan Ramiroren esaldi famatuak idatzita. Momentuz horretan gabilta.

—Eta noiz arte iraungo du egiteko honek? Epe-mugarik ipini diozue txioei eta bestelakoei?
—Duela bi hilabete hasi ginen zer egin-eta pentsatzen, eta orain momentu aktiboenean gaude, ze orain gaude gauza guztiak egiten. Baina, ikusiko dugu... dena egin ostean, hemendik bi astera edo agian, ea zelan doan ikusiko dugu, eta ea ba... Oraindik ez dakigu noiz bukatuko den hau... ○

Azaroaren 25a dela-eta emakumeen kontrako indarkeria salatzeke hamaika ekimen eta ekitaldi



Hika taldeak *Palabras* lana antzeztuko du azaroaren 30ean

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunaren harira hainbat ekimen antolatu da Getxon, nagusiak dira azaroaren 25eko mobilizazioak: Algortan eta Areetan 19:30ean (Telletxe/Bizkaiko Zubia) eta Romon 20:00etan (Sta. Eugenia).
Romoko emakumeen asanbladak aste akabu feminista egingo du azaroaren 22an eta 23an, Branka herriko tabernan. Abenduaren 1ean, barriz, hitzaldia egingo du kultur etxean, 19:30ean: “*Genero ikuspegia hirigintzan*”. Algortako Bilgune Feministak, Emakume Abertzaleen Topaketa Feministak aurkeztuko ditu azaroaren 22an, 11:00etan, Algortako kultur etxe-

an. Romoko Gizatiar taldeak, hitzaldi bi antolatu ditu 20rako, elizan: bata elikadura-desorekei buruzkoa, bestea legegintzari buruzkoa. Utopian gunean, antzerkia izango da azaroaren 22an, 20:00etan: *Yó, mi, me, conmigo* (Dordoka konpainia).
Berdintasun Zerbitzutik ere ekimen bi prestatu dituzte. Hilaren 26an, salaketa faltsuen mitoa desmontatzeari buruz hitz egingo du Patricia Verdes abokatuak, Villamonte kultur etxean, 19:00etan. Hilaren 30ean, barriz, *Palabras* antzeztuko da Andres Isasi musika-eskolan, 19:30ean (5 euro). Haurtzaindegi-zerbitzua eska daiteke egun bi lehenagora arte. ○

GETXON ERE, EUSKARAK BADITU 365 EGUN!

Euskararen Eguneetik haratago, euskarak 365 egun izan behar dituela aldarrikatzeko kanpaina abiatu da, eta Bizarra Lepoan elkarteak bideoa osatzen dabil: *Getxon ere, euskarak 365 egun!* lema esaten grabatu eta elkartera bidaltzeko eskatu dute. Elkar-teek eta norbanakoei graba dezakete, eta elkar-teek, ‘Getxo’ esan beharrean, taldearen izena esan dezakete. Ondoko helbidera bidali behar da: info@bizarralepoan.org (16/9 formatua, horizontala). Bestalde, abenduaren 3an kalejira egingo da Algortan (19:30ean, Telletxetik). Gainera, hurrengo UK-gaz kanpainaren kartela banatuko da, etxeko leihoan ipintzeko. Erdu euskaraz!
Info+: www.bizarralepoan.org

ARTISAUTZA-AZOKA AZARO AKABUAN

Azarako azken aste akabuan egingo da Artisautza-Azoka, 28tik 30era bitartean. Areetako Geltokia plazan kokatuko dituzte 72 stand. Esatea aurtan 30 urte beteko dituela eta, ohi legeaz, askotariko artisauak hurbilduko dira: 21 arlotako artisau-lanak ezagutu eta eskuratu ahaliko dira. Horretaz gainera, zeramikari-buruzko jardueraregitarau oparoa prestatu dute: tailerrak, erakusketak, hitzaldiak, erakustaldiak, proiektzioak, e.a. Azoka zabalduko dute 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (zapatuan 21:30 arte).
Info+: www.getxo.net

NAZIOARTEKO TRIKITIXA JAIALDIA HILAREN 29AN

Edurne Iturbe eta Oihana Irastorza, Niamh Ni Charra eta Daoiri Farrel, Timmi Turmel eta Christian Nolet, eta Ines Osinagak parte hartuko dute Nazioarteko Trikitixa Jaialdian. Areetako Andres Isasi musika-eskolan ospatuko da, azaroaren 29an, 19:00etan. Sarrerak daborduko eros daitezke, 8 euroren truke. Jaialdia amaitutakoan, Algortako Ekin tabernan trikijaia egingo dute eskualdeko Cloverwind taldeagaz.
Info+: www.getxo.net



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Maidar Bedaxagar Berrogain > Amaren Alabak musika-taldeko kidea

“Hain gutik egiten dute indarra kantuak konpreni-
tzeko, behartuak garela batuaz esplikatzerat”

Azaroaren 28an kontzertu ederra izango da Kultur Leioan: Amaren Alabak talde zuberotarrak kantatuko du, 21:00etik aurrera. Sei emakumek osatzen dute taldea eta musikaren laguntza barik kantatzen dute, a capella. Bigarren diskoko abestiak ekarriko dituzte Leioara.

—Zer eskainiko diezue entzuleei 28an?
—Pentsatzen dut *Plazandere* gure bigarren diskoko kantuak izango direla, erran nahi baita: denak pentsatzen dut euskarazkoak izango direla, xuberotarrez Etxahun Barkoxerenak, baxenafarreraz Xalbadorrenak, baita Didier Agerre presoaren kantu bat ere, Euskal Herriaren eta bere libertateari buruz. Baginuen kantu bat Gernikako bonbardaketaren inguruan, ez dugu ainitzetan kantatu eta batzuetan, Bizkaira joaiten ginelarik, kantatu dugu; baina ez dakit eginen dugun. Hitzari garrantzia emaiten duten kantuak dira. *Plazandere* pastoralak formaren inguruan egin genuen, makila eskuan, pastoraletan plazandereak egiten dira-eta.
—Txikitatik elkarregaz abesten duzue?
—Lehen aldikotz abestu genuen 11 urterekin, eta segitu genuen bestetan, kantu txapelketetan... Bi disko atera ditugu.



Info+: myspace.com/amarenalabak

—Beti egin duzue kantu mota bera?
—Lehen diskoan bagenituen kantuak ita-
lieraz, portugaldarrez... Bigarrenean euskarazkoak, baina beti musikarik gabe eta hitzei garrantzia emanez. Hori da gure kantatzeko manera eta ez dut uste kanbiatu behar dugunik, gu hortan sortu baigira, plazera hartzen dugu hola eginez.
—Kantu-tradizio hori gordetzeko garrantzitsuak dira zuena lako ekimenak?
—Ez dakit. Guk ez dugu kantatzen tradi-

zioarentzat, kantatzen dugu maite baitugu eta gurea baita. Gero tradizioaren salbatzeko egiten direnean, gauzek ez dute irauten. Baina kantu hori ezagutarazteko balio du. Gainera, ikastolako haurrak gira eta zurekin batuaz ari naiz. Hegoaldera joaiten batuaz esplikatzen ditugu kantuak, hor ez baitituzte xiberotar kantuak konprenitzen. Eta hain guti dira indarra egiten dutenak konprenitzeko non gu behartuak garen dena esplikatzerat. ○

Sakonetan erreformak eskatu ditu EHBilduk, “kiroldegiaren egoera negargarriari aurre egiteko”



Info+: leioa.ehbildu.net

Inbertsio plan bat abiatzea proposatu du EHBilduk Sakonetan “oinarrizko erreformak” egiteko; izan ere, udal-taldeak dio “kiroldegiaren egoera negargarria” dela. Horren ardura egotzi dio Gobernu Taldeari: “Urteetako utzikeria eta arduragabe-
riaren ostean leioaztarrek ez dute kiroldegi duinik; EAJk dirurik ez dagoela dioen bitartean, 540.000 euro gastatu ditu Pinosoloko uretako txirristetan”.
EHBilduren iritiz, egoera ondokoa da: “Erabiltzaileen kexak geroz eta ugaria-
goak dira, instalazioen kontsezioa Guedan enpresak hartu duenetik; igerilekuaren itxiera, bitartean sorosleak kontratuen deus-
estatzea sinatzera derrigortu dituzte, kon-
pontze-lanak iraun bitartean; waterpolo

eta igeri eskolek ezin dute Leioan entrena-
tu; dutxen eta aldagelen egoera negargarria;
langileen lan-baldintzen prekarizazioa eta
batzuek kaleratzea; gimnasioa gainezka
dago eta airea berrizteko sistema egokia
behar du; eta frontoiko zorua ere egoera
kaskarra”.
Gauzak horrela, udal-taldeak behar-
rezkoa deritzo erreforma bati “hur-
rengo urteetako erabilera duina bermatu ahal
izateko, hainbat urte igaroko dira-eta
kiroldegi berria eraiki arte”.
Horregaz batera, kirol azpiegituren
politika integrala eskatu du EHBilduk,
“berri osoa kontuan hartuko duena”; hau
da: “Kiroldegi berria martxan jarriko duen
prozesu parte-hartzailea”. ○

AZAROAREN 25EAN ELKARRETARATZEA
Elkarretaratzea deitu du Leioako Bilgune Feministak azaroaren 25erako, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako egunerako: Bulebarren izango da 19:30ean, eta amaitzean poema musikatua erezitatuko dituzte. Gainera, hilaren 21erako Topaketa Feministak aurkeztuko dituzte (Kurkudi taberna, 20:00). Azaroaren 29an, barriz, autodefentsa feminista tailerra egingo dute. Izena emon behar da aurrez: [facebook edo leioakobilgunefeminista@hotmail.com](mailto:leioakobilgunefeminista@hotmail.com).
Info+: www.bilgunefeminista.org

LEHEN ALDIA ZIKLOA KULTUR LEIOAN
Ume txikiak antzerkiagaz eta dantzagaz lehen esperientzia bizi ahaliko dute azaro amaieran, Kultur Leioak eurentzako prestatu ohi duen Lehen Aldia zikloan. Oraingoan, obra bi eskainiko dituzte. Batetik, azaroaren 22an, *H2O* antzeztuko du Helios Theater alemaniar taldeak. Bestetik, azaroaren 23an, *Kleur* dantza-
ikuskitzuna eskainiko du Dansmaker holandar taldeak. Bina emanaldi egingo dituzte, 12:30ean eta 18:00etan. Sarrera bakoitzak 5 euro balio du.
Info+: www.dansmakers.nl
eta www.helios-theater.de

DEJABU ANTZERKI-TALDEAREN ARRASTOAK
Dejabu Panpin Laborategiak Arrastoak lana antzeztuko du Kultur Leioan, azaroaren 29an. Emanaldia 20:30ean hasiko da eta sarrerak 10 euroan salduko dituzte: “Lurrek ez du sekula bere amari buruz galderarik egin. Arrastorik utzi gabe egin zuen alde bera txikia zenean. Bakarrik egin dio bizitzari aurre, etxean harrapatuta bizi den aitarekin, erantzunak bilatzeko astirik gabe. Orain amaren gorpua hilda agertu da, ordea, eta galderak hasi dira. Memoriaren zulo ezkutuenetan uste zituen sentimendu eta muntstroei egin beharko die aurre”.
Info+: www.dejabu.org

Inprimatu zure posterra airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne

Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Borja Ruiz Osante > Kabia Teatroa

“Antzerkian denboraz justu, askotan, prozesuak ez dira oso aberatsak; horregaz apurtu gura genuen”

Gaitzerdi antzerki taldetik sortu zen Kabia ikerkuntzarako gunea 2006an, baina orain urtebete bere bideari ekin zion. Azaroaren 27an *Itzala* antzezlanak ekarriko dute Erandiora, azoka zaharrera.

—Gaitzerdi barruan jaio, baina zuen bideari ekin diozue orain gitxi?

—Bai, ikerkuntza gune bezala jaio ginen, eta gure egiteko modua edo filosofia mantentzen dugu, baina orain Gaitzerditik kanpo. Duela urtebete espazio berria ireki genuen Bilbon, geure etxetxea, geure kabia. Bertan egiten ditugu entseguak, entrenamenduak eta eskolak.

—Zergatik gune horren beharra?

—Antzerkian ikertu gura genuen, batez ere proiektu bakoitzari behar duen denbora emonez. Izan ere, antzerkian denboraz oso justu gabilta normalean, eta prozesu artistikoak, askotan, ez dira oso aberatsak; horregaz apurtu gura genuen. Ikuskizun bat egiteko hartzen dugu urtebete edo urte bi. Bakoitza ikerkuntza bat delako: nondik sortzen dugun ideia, testua, zein estetika emoten diogun, zer motatako kantutxoak lantzen ditugun... horiek danak ikertzeko denbora behar dugu.

—Gaitzerdiren estilo berezia gorde da?

—Hasieratik barruko antzerkia egin dugu, antzokietarako. Gaitzerdi, Kabia sortu



Info+: www.kabia-teatro.com

zen garaian, kaleko antzerkia egiten hasi zen batez ere. Horrek markatzen du diferentzia handia: dramaturgia nola sortzen duzun, zer motatako istorioak sortzen dituzun, zer estetika mota lantzen duzun... eta aktoreen teknika erabat desberdina da. —Prozesu horren emaitzetako bat erakutsiko duzue Erandion: *Itzala*.

—Formatu txikiko ikuskizuna da, Jokin Oregiren testu batean oinarrituta dago. Eta aldi berean, Jokin Oregik ideia hartu zuen Joseba Sarrionandiaren testu batetik.

Testu hartan badago idazle bat eta bere itzala agertzen da. Baina itzalak ez du jarraitzen idazlearen mugimendua, itzal errebeldea da. Bere garaian, guk itzalaren pertsonaia sortu genuen. Ideia bageneukan, Jokin Oregik hura hartu eta obra idatzi zuen. Noski, Oregiren hitzetan ipuina erabat desberdina da: kasu honek, itzala herioa da. Pertsonaia batek itzal horren bisita jasotzen du eta komedia tragikomikoa sortzen da. Eta gehiago jakiteko, antzerkia ikustera hurbildu behar... ○

Berbodromoan euskaraz

Abenduaren 3an egingo da Berbodromoa

Altzagako azoka zaharrean, goizez



Berbodromoaren aurretiko edizio bat. ARGAZKIA: Euskara Zerbitzua

Euskaraz berba egiteko aukera emongo du Berbodromoak, abenduaren 3an. Euskara-Zerbitzuak antolatu du, Topaguneagaz eta Berbots Erandion Euskaraz elkarrekin. Altzagako azoka zaharrean egingo da, 10:00etatik aurrera.

Taldeka banatuko dituzte parte-hartzaileak, hainbat gairi buruz hitz egiteko. Talde horietako bakoitza dinamizatzaile batek gidatuko du, ohi legez, euskarazko kultur arloan ezagunak diren pertsonak. Aurreko edizioetan izan dira, besteak beste, Urko Aristi eta Itziar Ituño. Gainera, gura duen orok parte har dezake eta ez dago beharrik aurrez izena emoteko:

abenduaren 3an Berbodromora hurbildu besterik ez dauka. Antolatzaileek esan dutenez, goiz amaieran txokolate eta bizkotxo-jana egingo da; normalean 100 bat erandioztar elkartzen dira.

Berbodromoa euskararen erabilera bultzatzu asmoz egin ohi da, bai Erandion, bai beste hainbat herritan. Gainera, herriko euskaldunen artean harremanak ere sortu gura dituzte: “*hurrengoetan, kalean elkartuz gero, lehen hitza euskaraz izan dadin*”. Aurreko urteetako emaitza “oso positiboa” izan da eta parte-hartzaileak gustura lotu ei dira. ○

Info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES, HILAREN 29AN

Shakespearearen *Much ado about Nothing* komediaren egokitzea aurkeztuko du Las Grotesques antzerki-taldeak azaroaren 29an, Astrabuduko kultur etxean: Aragoiko Don Pedoren itzulera gaza hasten da lana. Izugarritzko zalaparta sortzen da, lagun arteko topaketak eta dibertsioa. Klaudio kondea –Don Pedoren eskuineko eskua– ero baten moduan maiteminduko da, iritsi eta berehala, gobernadorearen alaba Herogaz, eta harekin ezkondu gura du. Ohore eta desohore istorioa 20:00etan hasiko da; sarrera 5 euro kostatzen da.

Info+: www.camarablanca.com

SANTA CECILIA KONTZERTUA ALTZAGAN

Azaroaren 25ean izango da Santa Cecilia kontzertua, non eta Altzagako azoka zaharrean. Gainera, musika-bandaren 49. urteurrena ospatuko da. Mendibaiarte eta Altzaga abesbatzek parte hartuko dute eta Abba musika-taldearen kantak abestuko dituzte. Sartzea doakoa izango da eta emanaldia arrastiko 20:00etan hasiko da. Kontzertu originalagaz gozatzeko aukera paregabea daukazu Erandion.

Info+: www.erandio.net

HAIKU-LEHIAKETAREN AZKEN EGUNAK

Azaroaren 27ra arte aurkeztu daitezke haiku poemak, Euskara Zerbitzuan edo posta elektronikoz: euskara@erandioko-udala.org. Haikua poema txikia da, japoniarra. Hiru lerro dauka: lehenengoa bost silabakoa, bigarrena zazpikoa eta, hirugarrena, barriz ere bostekoa. Ez du titulurik, ez erimarik, eta askotan puntuazio markarik ere ez. Hitzak dira protagonista, bestelako apaizura barik. Kategoria bi daude lehiaketan: bata 18 urtetik beherakoentzat, bestea 18tik gorakoentzat. Dagokien mailan, parte-hartzaileek hiru haiku aurkeztu ditzakete gehienez. Irabazleek irakurgailu elektroniko bati jasoko dute.

Info+: www.erandiokoeuskarazerbitzua.com

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Katamalo Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

Plateruenaren alde Katamalo egindako lana. 8€an eskuragai gurean.

...eta urte ASKOTARAKO!

CABARET CHIHUAHUA ETA PUNTO MEDIO LANAK

Azaro osoan kultur eskaintza zabala egin du Kurtzio kultur etxeak, eta hil akabuan ere egongo da zer ikusi. besteak beste, antzezlan bi ikusteko parada egongo da Kurtzio kultur etxean. Batetik, hilaren 21ean, *Cabaret Chihuahua* (Pabellon 6 eta Teatro Mutante) antzeztuko dute: “*Ironiaz beteriko musikal euskal-mexikarra*” da, gaztelaniaz antzeztua; emanaldia 20:00etan hasiko da (6 euro). Bestetik, azaroaren 22an, *Punto medio* lana eskainiko du Burbujas taldeak. Doakoa izango da eta 20:00etan hasiko da.

Info+: www.sopelaudala.org

AZAROAK 25: MANIFESTUA ETA MAHAINGURUA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna da nazioartean azaroaren 25a, aurten martitzenez. Hori dela-eta, urtero legez, manifestua irakurriko dute udaletxeko plazan, 19:00etan; eta jarraian, mahainguria egingo dute udaletxe barruan. Bestalde, azaroaren 27an, genero ikuspegiko zikloaren emanaldi barri bat egingo da. Aukeratu duten filma da *La maleta de Marta* (dokumentala); Kurtzio kultur etxean emongo dute, 18:00etan eta doan.

Info+: www.sopelaudala.org

PALA-TXAPELKETAK AZARO AKABUAN

Emakumezkoen banakako pala motzaren eta gomazko paletaren III. GMGZ zirkuituko partidak jokatu dira hil akabuan: hain zuzen ere, azaroaren 29an eta 30ean, non eta udal-pilotalekuan (Sabino Arana, 2). Zapatuan, hilaren 29an, goizez eta arrastiz izango dira: goizean, 10:00etatik aurrera; eta arrastian, 16:00etatik aurrera (partidak amaitu arte). Domekan, barriz, goizez bakarrik jokatu dira partidak. Halere, zapatuan baino apur bat beranduago hasiko dira, goizeko 11:00etan. Emon gogor!

Info+: www.sopelaudala.org

Euskara Egunak Mikel Markez, *Lingua Navajorum*, bertso-saio musikatua, dantza... dana euskaraz



Mikel Markezen kontzertuagaz abiatuko dira Euskara Egunak, azaroaren 28an

Euskara Egunak izango dira azaroaren 28 eta abenduaren 5 bitartean; izan ere, abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzen da. Diziplina desberdinetako lanakak gozatu ahaliko da.

Mikel Markezek *Indar bat dabil hor* lana aurkeztuko du hilaren 28an, 20:00etan, Kurtzio kultur etxean (3 euro). Azaroaren 30ean, barriz, dantza, musika eta antzerkia elkarzen dituen ikuskizuna izango da: *Itsasoaren emazteak*. Oinkari eta Hika taldeen obra Urko kiroldegian egingo da, 19:00etan (umeei 3 euro, nagusiei 5 euro). Abenduaren 3an, Euska-

raren Egunean, Mintzodromoa egingo da (sopeloztarrak gai jakin batzuei buruz euskaraz hitz egiteko). Pilotalekuan egingo da, 19:00etan (parte hartzeko SMSa bidali: 688 654 770 edo 688 654 773).

Hilaren 4an, *Ez da kasualitatea* bertso-saioa izango da kultur etxean: Uxue Alberdi, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Jone Uriak kantatuko dute, musikak lagunduta. Doakoa izango da eta 19:00etan hasiko da. Abenduaren 5ean, amaitzeko, *Lingua navajorum* antzeztuko dute Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak kultur etxean, 20:00etan (3 euro). ○

Nerea Martin Milan > margolaria

“Jende oso gutxik baloratzen du pintura behar den moduan”



Bere koadroak ikus daitezke hilaren 23ra arte, Kurtzio kultur etxean

Kurtzio kultur etxean erakusten ari da bere margoak Nerea Martin Milan gaztea: olioak eta akrilikoak dira eta azaroaren 23ra arte ikus daitezke.

—Ez da erraza erakusketak egitea, ezta? Zelan sortu zaizu aukera?

—Zuzenean galdetu nuen eta azaroan egiteko aukera emon zidaten. Lanak aurrez Urdulizen erakutsi nituenez, Sopelan ere aukera egon zitekeela pentsatu nuen. Galerietan oso zaila da erakustea profesionalak ez garenontzat, baina kultur etxeetan errazago da. Horrelakoak lehen pausoa dira lana ezagutarazteko.

—Noiztik margotzen duzu?

—Bost urtetatik. Gurasoek apuntatu ninduten pintura eskoletara. Gustuko nuen eta jarraitu egin dut.

—Eta pinturagaz harremana daukan zer edo zer ikasten ari zara?

—Ez, psikologia ikasten dut eta denbora librean margotzen dut. Oso zaila da honetaz bakarrik bizitzea eta horregatik ez

dut ikasten Arte Ederrak. Jende oso gutxi baloratzen du pintura behar den moduan, eta gustuen araberakoa ere bada.

—Erakusketakoak olioak dira?

—Gehienak olioak, eta baten bat akriliko edo arkatzez margotutakoa. Batzuk Afrikagaz lotutako koadroak dira, beste batzuk eskolan egindakoak, baina ez da bilduma bat; nahasketa da. Koadroak, oraingoz, ez daude salmentan, baina norbaitek enkarguren bat gura izanez gero, nigaz harremanetan ipintzea dauka.

«Pinturak lasaitasuna emoten dit: deskonektatzeko unea da»

—Zer emoten dizu pinturak?

—Gauza asko. Lasaitasuna: deskonektatzeko unea da, margotzen hasi, lanean murgildu eta neure gauzetan pentsatzen dut. Azken finean, beharra da. Betidanik margotu dut, nire bizitzaren parte da eta espero dut ez uztea; eta aukera banu, profesionalki arituko nintzateke. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Aleman

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia
Ane Nafarrate Martin
Doctor Landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

BERANGO KULTURAZ BLAI,
UME ZEIN NAGUSIENTZAT

Azaro akabuan ere zer egitekoa egongo da Berango Antzokian, umeentzat eta musikazaleentzat. Azaroaren 23an, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko umeentzako txotxongilo emanaldia izango da, 18:00etan. Azaroaren 29an, berriz, musika emanaldi interesgarria eta berritzailea hartuko du Antzokiak, Maite Arroitauregiren Mursego taldearen eskumenez, 19:00etan. Bi saioak debalde izango dira.

BERANGOKO MILIA,
EUSKADIKO ONENA

Beste urte batez, Berangoko Nazioarteko Milia Espainiar Estatuan antolatzen den bigarren miliarik onena da, Espainiako Atletismo Federazioaren arabera. Horregaz batera, Berangokoa Euskadin egiten den proba atletikorik onena da, ranking horren arabera, 904,67 puntu lortuta. Getxoko Miliak, berriz, 12. postua lortu du, 183 puntugaz. Espainiako Federazioak hainbat alor hartzen ditu kontuan puntuaketarako.



SKATEPARK
UK
BERANGO Indoor®

ukskateparkberango@gmail.com

Tf. 664 226 700

Sabino Arana 60, BERANGO

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

Sergio Barcenilla Alvarez > Stay and Job

“Independizatzeko eta lana aurkitzeko dauden zailtasunei aurre egiten diegu”



Info+: www.stayandjob.blogspot.com

Berangoko Santa Ana auzoan 35 urte-tik beherako neska-mutlei zuzendutako inizatiba bat jarri dute martxan, norberak aurrera eroateko eta independizatu ahal izateko. Proiektu horri Stay and Job izena eman diote.

—Nondik dator proiektuaren ideia?
—Proiektu hau gazteek independizatzeko eta enplegu bat lortzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko ideiaz sortu zen. Perspektiba bikoitz horretatik abiatuta, kolektibo horri laguntzeko eragile bat gara, sorkuntzarako eta ekintzaileentzako espazio bat sortu eta gazteak independizatzeko tokia eraiki duena, prezio “sozial” eta arrazoizko batean. Dinamika honi coworking-egoitza deritzogu.
—Mota honetako proiekturik badago inguruan?
—Hala bada ez dugu ezagutzen. Ekin-tzaileentzako eta gazteei zuzendutako la-na bilatzeko inizatibak daude, Behargin-tzak, Lanbidek eta udalen enplegu politi-kek bultzatuta. Etxebizitzaren alorrean,

Etxebideren politikek ez dituzte gazteon beharrianak asetzen. Ez dugu coworking-egoitza bezalako bestelako dina-mikarik ezagutu orain arte.
—Zer bultzatzen duzue horregaz?
—Herritartasun aktiboa eta partehar-tzailea bultzatzen dugu, independentea, arduratsua eta betebeharrakaz. Baina baita eskubideakaz eta norbanakoak ga-

«Herritartasun aktiboa
eta partehartzailea
bultzatzen dugu»

ratzeko espazioakaz. Gazte aktiboak bilatzen ditugu, dinamikoak eta perfil bereko bestelako pertsonakaz erlaziona-tzeko gogoia dutenak.
—Zelakoa da funtzionamendua?
—Espazioak bizikidetzat bultzatzen du. Egoitza 12-14 pertsonari zuzenduta da-go, eta eraikina handia da. Eremu pribatuak daude, baina baita komunak ere, guztion arteko ekintzak burutzeko. Per-sona bakoitzak, gainera, bere proiektua garatzeko lekua du. o

Gorka Zuazo > SD Plentzia klubeko presidentea

“Plentzia herri kirolaria izan da beti, horregatik sortu zen kluba”



SD Plentzia klubak 90. urteurrena ospatuko du laster

2015eko urriaren 12an 90 urte beteko ditu SD Plentzia futbol-klubak. Denbora tarte luze horretan, klubaren hazkundera etengabekoa izan da, eta egun inoiz baino hobeto dagoela aitortzen du klubeko pre-sidenteak. 90 urte horiek ospatzeko, egita-rau zabala prestatzen dabilta.

—Datorren urtean SD Plentzia taldeak 90 urte beteko ditu, zelakoa izan zen taldearen sorrera?
—1925eko urriaren 12a baino lehen ere futboleak joka zitekeen Plentzian, Plen-cia Club taldeagaz. Badago 1916an San Mamesen Athletic Clubaren kontra jo-katutako partidua baten erregistro bat, baina 1925ean sortu zen taldea, Juan de Gardoki Mandaluniz presidente zela. Guztira 200 bazkidek osatzen zuten tal-dea. Gaur bezala, Plentzia herri kirolaria zen garai hartan, eta ofizialki lehiatzeko talde bat sortzeko beharra ikusi zuten. Sorreraren lehenengo urteetan emaitzak oso onak izan ziren.
—Urteurrena ospatzeko egitarau zabala

prestatzen zabilzate, ezta? Zer edo zer aurreratu ahal diguzu?
—Kluba hainbat ekimen prestatzen ari da, bai, baina zirriborroan dago dena oraindik. Hasteko, jokalaria eta talde guztien kromo bilduma bat egingo dugu. Abenduaren 31n herri-lasterketa egingo dugu, jokalariaz eztabaida mahai-inguruak burutuko ditugu, ar-

«Klubeko jokalaria guztien
kromo bilduma egingo
dugu urteurrenerako»

gazki-erakusketak egingo ditugu, eta beste hainbat ekimen ere prestatuko di-tugu, oraindik zehaztu ez ditugunak. Aste Santuan, berriz, Jesus Irusta ki-muen futbol 7 txapelketa egingo dugu. Horretan, penintsula iparraldeko 16 tal-dek parte hartuko dute, baita Kataluni-atik etorritakoek ere. Aurten, gainera, Europako talderen bat ekartzen saiatuko gara. Azkenik, futbol-zelaia berreskura-tzen ahaleginduko gara. Horretarako nagusien partiduren bat egingo dugu. o

OSABIDE HOR-TZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 26 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

**COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.**

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

URIBE KOSTA OLENTZERO BISITATZERA DOA

Gabonak ate joka ditugu eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eskualdeko haurrak zein helduak Olentzeroren etxea bisitatze-ko hainbat irteera antolatu ditu, bana herri bakoitzeko. Izenaduba basora joan nahi duenak izena eman beharko du azaroaren 21a baino lehen. Izen-emateak herri bakoitzeko Kultur Etxean izango dira. Hiru urtetik gorakoek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Barrikaren kasuan, berriz, 14 urtera artekoak debalde joan ahal izango dira. Adingabeek gurasoakaz edo arduradun bategaz joan beharko dute. Irteera bakoitzeko tokiak 35era mugatuko dituztela jakinarazi dute arduradunek. Irteeko ordutegiak eta egunak udalerriaren araberakoak izango dira.

Info+: www.uribekosta.org
Harremanetarako: 946 579 279

BAGA, BIGA, HIGA HITZALDI KONTZERTUA PLENTZIAN

Euskal kantagintza eta kultura sustatzeko aldera, Plentziako institutuko ikasleek Eñaut Elorrieta- ren eta Mikel Markezen *Baga, Biga, Higa* hitzaldi kontzertuaz gozatu ahaliko dute abenduaren 3an. Tokiko Udalak antolatutako ekimena euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena helburu dituen proiektua da. Horretarako, multimedia formatuko hitzaldi-kontzertuen bitartez, ikus-entzuleari euskal musikaren historiaren gaineko begirada eskainiko zaio, 60. hamarkadaren aurreko garaietatik hasi eta gaur egunera artekoa.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf. 94 460 90 31

48990 ALGORTA

Urduliz

Enplegua sortzeko hainbat ekimen ipini ditu martxan Urdulizko Udalak



Urdulizko Udalak, guztira, ia 210.000 euro inbertitu ditu enplegua sustatzeko ekimenetan

Azken urteotan krisiak gogor kolpatu du Uribe Kosta, eta Urduliz ere bai. Hasieran, udalerriko industria jarduerak eutsi egin zion enplegu mailari, baina urteak aurrera egin ahala, gero eta zailagoa izan da enpleguaren egiturari eustea. Egoera horri aurre egiteko, Urdulizko Udalak ekintza nagusi bi jarri ditu martxan: batetik, udalerriko mailako ekimen bereziak eta, bestetik, eskualde mailako enplegua eta ekonomia sustatzekoak.

Herri mailako ekimenetarako, Urdulizko Udalak 150.000 euroko aurrekontua bideratu du. Hala, hiru ekintza jarri ditu martxan: langabezian dauden pertsonak kontratatatzeko programa, urtero 8 pertsona kontratatu dituzte horregaz; udalerrian lan barik daudenentzako pres- takuntza-programa; eta Berriri Lanean programa, langabezian denbora luzean daroaten 35 urtetik gorako emakumeak lan merkatura itzul daitezen bultzatzeko helburua daukana.

Bestalde, Udalak parte hartzen duen eskualde mailako ekimenetan, honakoak burutu dituzte Urdulizen: Udalgaztedi programa (UK Gaztea), 16 eta 29 urte bitarteko neska-mutilentzako presta- kuntza-ekimenak bultzatzeko eta enpre- setan praktikak egiteko programa; 2014

«Bestetak beste, beren- beregi herri mailako ekimen hauetara 150.000 euro bideratu ditu Udalak»

urteko Behargintzako Kudeaketa Plana, orientatzeko eta lan bitartekaritzarako zerbitzua zein enpresei laguntzeko zerbi- tzua eskaintzen duena; eta enpresa be- rrien haztegiaren sorkuntza. Azken ho- negaz, Udalak lokal bat ipini du Behar- gintzaren esku, 10 urterako, Enpresa Bil- tegi bat martxan jartzeko. Azpiegitura horrek 6 jarduera berrirentzako ahalme- na du. Horietarako, Udalak guztira 209.500 euro inbertitu ditu 2014an. o

Aza. 17 - Abe. 1

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO
► **Giza: Human (eskulturak).** Azaroaren 26ra arte. Algortako kultur etxean. Doan.
► **Nazario y las santas inquisiciones.** Azaroaren 30era arte. Algortako Torrene aretoan. Doan.

MUSIKA

PLENTZIA
► **Kantujira Fermin Balentziagaz.** Azaroak 28, 19:00etan. Ermitatik.

SOPELA
► **Mikel Markez.** Azaroak 28, 20:00etan. Kultur etxean. 3 euro.
LEIOA
► **Amaren Alabak.** Azaroak 28, 21:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.
BERANGO
► **Mursego.** Azaroak 29, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

GETXO
► **Nazioarteko Trikitixa-Jaialdia.** Azaroak 29, 19:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 8 euro.

BARRIKA
► **Mikel Uraken.** Azaroak 29, 20:00etan. Pilotalekuan.

GORLIZ
► **Triki Kantu Dantza Poteoa Rikardo Uretaren omenez.** Azaroak 30, 12:00etan. Elizako plazatik.

ANTZERKIA

SOPELA
► **Cabaret Chihuahua.** Azaroak 21, 20:00etan. Kurtzion. 6 euro.

Maiztasun berrak elkarrekin
Argazkietan oinarritutako
**TESTU LABURREN
III. LEHIAKETA**

Argazkiak eta testurik onenak gozagai

► **Erakusketa**
ArgIHizkiak lehiaketaren erakusketa barria
Argazkietan oinarritutako testuen lehiaketa da ArgIHizkiak eta bere erakusketa inauguratu da Getxon; Egizuk eta UK-k antolatu dugu, euskara elkarteek, Udalen eta Mankomunitatearen laguntzagaz. Hamar argazkilarik parte hartu du aurtetik: Garikoitz Bilbao, Zuriñe Unzueta, M^a Victoria Bengoa, Alfredo Aldai, Jon Astorquiza, Asier Mentxaka, Andoni Berriotxoa *Lubaki*, Ana Gonzalez, Mikel Martinez eta Endika Martinez. Testurik onenak, barriz, Maitane Nerekan Umaranena (labur-laburra) eta Josu Gotzon Landeta Egurrolarena (laburra) izan dira (guztira 100dik gora jaso ditugu). Epaila lanetan jardun dute Itxaso Paiak eta Edorta España.

• **Non:** Villamonte kultur etxean • **Noiz:** Abenduaren 4ra arte

► **Itsasoaren emazteak.** Azaroak 30, 19:00etan. Urkon. 5 euro.

LEIOA
► **Staying alive.** Azaroak 21, 20:00etan. Kultur Leioan. 12 euro.
► **Arrastoak (Dejabu).** Azaroak 29, 20:30ean. Kultur Leioan. 10 euro.

GORLIZ
► **Ipuin-kontaketa.** Azaroak 22, 18:30ean. Sertutxenan. Doan.

BERANGO
► **Esta historia mia, esta historia**

nuestra. Azaroak 22, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.
► **Koloreak (txotxongiloak).** Azaroak 23, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

ERANDIO
► **Itzala (Kabia Teatro).** Azaroak 27, 20:00etan. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

URDULIZ
► **Bazen behin eta bada gaur Urdulizen.** Azaroak 29, 18:00etan. Kultur etxean.

GETXO
► **Palabras (Hika Teatro).** Azaroak 30, 19:30ean. Areetako musika- eskolan. 5 euro.

ZINEMA

BARRIKA
► **Las aventuras de Peabody y Sherman.** Azaroak 21, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

ERANDIO
► **Los Croods.** Azaroak 22, 17:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.
► **Mil veces buenas noches.** Azaroak 22, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

URDULIZ
► **Las tortugas ninja.** Azaroak 22, 18:00etan. Kultur etxean. 3,5 euro.

SOPELA
► **La maleta de Marta.** Azaroak 27, 18:00etan. Kultur etxean. Doan.

GETXO
► **Pelo malo.** Azaroak 28, 21:00etan. Areetako musika-eskolan. 2,90 euro.

BERANGO
► **Los Muppets.** Azaroak 30, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

HITZALDIK

GETXO
► **Latinoamerikar emakumeen komikigintza (Josune Muñoz).** Azaroak 21, 19:00etan. Algortako kultur etxean.

LEMOIZ
► **Lemoizko bertsolaritza (Fredi Paia).** Abenduak 2, 19:00etan. Kultur etxean.

SATISTEGI

CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA




Hormen adierazpenak

Non adierazi, non esan, non erakutsi, non azaldu, non aldarrikatu...
Artea ala zikinkeria... Hormaren, euskarri horren inguruko eztabaida...
Jabetzaren gaineko zurrunbiloa... Erabilgarritasuna... Hau bai eta hori ez...
Adierazpen askatasuna... Argi eta garbi berba egingo baligute hormek,
gaiaz lohituko balira, marrazki edo hitzez sentitzen dutena azaldu gura
baligute... zein euskarri erabiliko lukete? Eskura dutena?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





ARGAZKIA: INDALICIO OJANGUREN, 1932

Anton Portu

Armintzako arrantzalea, 1932an

Antonio Gaubeka Zabala *Anton Portu*, Armintzako arrantzalea erretratatu zuen Indalecio Ojanguren 1932an. Kalitate oso handiko irudian ikusten da arrantzalea, hamaika aldiz konpondutako arropaz jantzita eta otzara eskuan: lanbide gogorraren arrastoak. Ordutik joan da urte mordo, baina ogibidearen gogorra ez da uxatu. Joan dadila Barrikan urrian zendutako arrantzalearen omenez: Iñaki Irureta algotarraren omenez. Itsasoa lagun eta hark irentsi, olatu artean emon du azkena...

[berbetan]

Gitarraren akordeak eta melodia bat. Solasaldiari hasiera emon zion kantu bategaz Garik (Iñaki Igon Garitaonandia, Legazpi, 1964). Azaro hasieran bisita egin zigun Algortako kultur etxean, Topagunearen Udagoieneko Ostera programaren barruan. Berbalagunek aurkezpen-askaria egin zuten eta segidan hasi zen Gari abesten: *Eutsiko diogu!* zioen, *beti!* Azken diskoaren kantuetako bat da: *Ez da amaiera* lana ikusleen aurrera ekarri zuen handik egun batzuetara, Areetako musika eskolan. Garik eutsi diolako; eta ez da amaiera, hasiera bat baino. Hasieraz beterik dago-eta bere bizitza, bere musika...

Gari

Borroka ez da amaitu...

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Rokanrolak Euskadin ez ei du dirurik emoten, baina zuk eutsi diozu, zergatik? —Inportantea da edozein proiektutan ilusioa izatea. Gauza bera euskararekin: ez badago ilusioak ematen dizun indarrik, gauzak okertzen dira eta ez dago helmugarik. Musika, gaur egun, oso gaizki dago, baita Euskal Herrian ere. Euskaraz abestuta arazo horiek biderkatzen dira. Bilatu behar ditugu bestelako formulak eta beharrezkoa dugu publikoarengana hurbiltzea; ezin gara geratu euren zain. Lan piloa dugu, urteotan kultura baztertu dugulako. Gehien bat politikariek, edozein koloretakoek; beti gauza bera egiten dute. Ekitaldietan kulturari buruz hitz egin, baina gero, hori ez da sekula sendotzen proiektuetan; ezer gutxi eraikitzen da eta, eraikitzen denean, argazkia egiteko da. Baina ilusioa dagoen bitartean, norberak eutsi behar, ez dago besterik. —Suposatzen da orain tresna gehiago dagoela hedapenerako, baina errazago da gaur egun musika egitea? —Ez nuke esango errazago edo zailago.

Inernetek ematen digu aukera asko, baina ez du esan nahi erabilera hobea denik; aukera gehiegi ematen digu, baina zertarako? Interneten sartzen zara, baina kapsula batean bezala; oso zaila da hortik beste mundu batzuetara iristea. Adibidez, kulturalki biblioteca zoragarria dago sarean, baina ez badakit zer aukeratu, ezin dut ezer egin. Ikusten da erantzuna gero eta pobregara delako. Gero eta zailago da proiektuak aurrera eramatea; egoera oso azkar aldatu da. Ideia ahalik eta zoro-

“Borroka ez da amaitu, beste gudu-zelai batean gaude; borrokalariak gara eta hor egon behar: borrokan”

enak bilatu behar ditugu, gehien bat gazteengan eragiteko, etorkizuna ez dagoelako gure eskuetan. —Horregatik zabilta Txikiak Eraikitzen proiektuagaz? —Ez da bakarrik Txikiak Eraikitzen, izan ere, txikiek ere buruhauste pilo bat sortzen dizkizute, umeekin ez da batere

erraza. Zerua ikusten duzu, baina beste batzuetan infernura erortzen zara eurekin. Hori baino inportanteagoa da sare txikiak sortzea. Azken aldian ideia horrekin gabiltza hainbat jende, musika arloan behintzat. Nolabaiteko komunitateak dira eta ideia da horien artean lotura bat sortzea kultura-esparruan; baina ofiziala ez den kulturaren. Izan ere, gaur egun, ez baduzu babes inportanterik, ez baduzu sortzen formatu erraldoiko zerbait, ez zara existitzen, ez daukazu neurria nola-

baiteko erantzuna jasotzeko. Gazteek, gero eta gehiago, medioetatik jasotzen dute neurri hori: medioek jartzen dute neurria. Baina internet ez da medio libre bat. Saltzen dute medio libre bat bezala, baina interneten ere, *mainstring* enpresak hor daude. Kultura arloan ere badauzkagu A klaseak eta Z klaseak. Horrek ez du

esan nahi Z klasekoak direnik gutxien dutenak, baizik eta kulturalki beste ikuspegi bat dutela, beste jarrera bat. Baina zer gertatzen da? *Mainstring-ek* eta bote-reak bakarrik ematen diotela argia A kla-seari. Interneten ere gertatzen da, nahiz eta oso espazio zabala izan. Horregatik, gure asmoa da espazio txikiak sortzea, eta komunitate txiki horien bitartez sare bat egiten joatea, beste modu batean publikoaren aurrean azaltzeko, beste proposamen batzuk azaltzeko.

—Musika mailan, kultur mailan?

—Ghien bat kultur mailan. Lehen proiektua izan da Hodei Egiluz galdakaotarrari buruzkoa. Ikusi genuen zer gertatzen ari zen eta familia nola zebilen, eta pentsatu genuen egoera polita zela gure ideiak zabaltzeko. Artistok, nolabait, erantzun behar diegu gizartean gertatzen diren gauzei, eta gure erantzunak oso zuzena izan behar du, momentukoa; ez baitauka zentzurik, adibidez kasu horretan, proiektu bat hastera orain, datorren urtera begira; behar dugu berehalakotasuna: goazen artista batzuk elkartzera, goazen erantzutera, baina momentuan eta ikuspegi zabaletik. Egitasmo hartan elkartu ginen musikariak, bideo-egileak eta jende gehiago. Proiektua zabaldu nahi dugu, ez da erraza, artista bakoitza bere ontzian doalako, ez goaz danak barku berean. Kontuan hartu behar dugu ere artistak, azken finean, prostituta batzuk garela. Gu gara katearen azken katebegia. Gero badaude managerra, ekoizleak eta babesleak; demagun Eusko Jaurlaritza, diputazioa, udalak, BBK edo edozein. Orduan, oso konplikatua da. Baina ez dugu pentsatu behar kate horren azken pausoa garenik, baizik eta erantzuna gure eskuetan dagoela, eta ez diogula inori itxoin beharrik gure proiektuak gauzatzeko; eta hortan gabiltza.

—Proiektuez zabiltzala, domekan aurkezpen-kontzertua duzu, diskoa: *Ez da amaiera*. Hori zer da, mehatxua?

—Bueno, giroa ez dago erraza. Suposa-

tzen dut psikiatra batek nik baino hitz garbiagoekin azalduko lukeela, baina ni beti, nolabait, hasten nabil, hasiera baten bila noa. Giroa dagoen moduan, mezu baikorra zabaldu nahi nuen, bai diskoan, bai zuzenekoetan. *Ez da amaiera*, azken finean, hasiera bati ekitea da. Ildo horretatik doa, bai. Beti hazten, beti gazte.

—Bai, duela urte batzuk ere zerotik hasi

“Modan daude tributoak, baina Hertzainak-en tributorik ez dago; ez da batere erraza, ez zen talde arrunta”

zinen; beti gazteengana heldu guran?

—Iritsi baino, mezu ezberdin bat uztea da, oso zaila delako. Beti izan da zaila, guztiok gazte izan gara eta badakigu zer den hori. Gaztetan beste mundu bat ikusten duzu zure aurrean, beste zeresanahi batzuk bilatzen zoaz eta beste gauza bat da. Baina baita beste jarrera bat adieraztea ere, hori tokatzen zaigulako. Azken finean, artista baten lana ez da bakarrik bere obran buru-belarri sartzea, baita ere gizarteari beste ikuspuntu bat azaltzea.

—Modan dago aspaldiko taldeak barriro elkartzea, baina zuk esan duzu Hertzainak barriro ez dela posible; ez litzatekeela Hertzainak, beste gauza bat baino?

—Bai, eta konturatzen bazara, oso modan jarri da tributoak egitea. Talde amerikarrak, ingelesak, espainolak eta, nola ez,

“Proiektu denak dira erraldoiak, baina non geratzen da gizartea? Beste modu batean eraiki behar dugu gure kultura”

euskaldunak. Baina Hertzainak-en talde tributorik ez dago, eta erantzuna oso erraza da: ez da batere erraza. Gure musika oso konplikatua zen, gu ere talde bezala konplikatuak ginelako. Ez ginen talde arrunta. Bakoitza alde batetik zetorren, herrialde batetik, adin desberdinetakoak ginen, giro sozial desberdinetakoak...

Poiektu oso zoroa izan zen, hasieratik; eta kantak, musikalki oso konplikatuak. Guk azaltzen genuenak lotura oso estua zuen garaiarekin. Adibidez, gaur egun *Drogak AEKn* abesteak ez dauka zentzurik. Akaso Euskadi tropikalarenak bai... Garaiak asko aldatu dira. Hertzainak elkartzeak ez dauka zentzurik. Gaur egun, ikusten ari gara gizartean moralki eta etikoki horrela-

ko eztanda izugarria. Beraz, balore horiek non jarri gaurko gizartean? Gure kasuan, abesten genuenak eta gure jarrerak, gure bizitzarekin lotura zeukan, bat zetozen. Beraz, gaur egun proiektu hori berbizitza, zertarako? Ez dauka zentzurik. Momentu batean egin genuen hori, indar egin genuen proiektu hura bultzatzeko eta badago: gure helburua bete genuen garai hartan. Beraz, gaur egun ez dauka zentzurik mezu hori zabaltzeak edo proiektu hori berbizitzeak. Beste gauza bat da gai garela Hertzainak proiektua alde batera utzi, eta ghien bat Josu Zabala eta bion artean egiten dugun bezala, beste formatu batean aritzeko. Gitarra akustikoa eta trikitixarekin, nahi dugunean edo segun zer proposamen luzatzen diguten, prestatzen dugu abestien zerrenda bat eta

jotzen dugu. Baina ez dago berrikusterik, beste helburu bat dauka: ondo pasatzea eta azaltzea hor gaudela, borrokan. Guretzako borroka ez da amaitu, beste gudu-zelai batean gaude; baina, azken finean, gu borrokalariak gara, eta beraz, hor egon behar dugu: borrokan.

—Horixe emoten diozu zuk musikari?

—Niretzako musika edo kultura ez da bakarrik kantak egitea eta jendaurrean aurkeztea; horrek ez dauka zentzu handiegirik gaur egun. Nik uste musika tresna bat dela beste proiektu batzuei bultzada emateko. Lehen esan duguna: sare horiek sortzea inportanteago da. Ikusten dugu Bilbon bertan: ni bertan kanpotarra naiz, baina Bilbon ez naiz kanpotar sentitzen.

“Beti izan naiz txoriburua. Amamak esaten zidan: *Edadea hartzerakoan, akaso, apalduko zara; eta ke ba!*”

Euskaldunon hiri nagusia da, nahiz eta, adibidez, donostiarra izan. Bilbok ikutu oso berezia dauka. Eta ez dut ulertzen ondoegi eraiki dugun Bilbo horretan zergatik espazioa bakarrik den gauza erraldoiak sortzeko. Guggenheimek izan zuen bultzada hark, dirudienez, bakarrik balio du bere atzetik proiektu guztiak erraldoiak izateko. Eta gizartea non geratzen da? Argazkietan bakarrik, denok kurioso-kurioso azaltzeko? Ez dauka zentzurik. Non bizi gara? Hori da gizartea, hori da mundua? Batzuentzako bai, baina beste asko hortik kanpo gaude eta behar dugu beste modu batean eraiki gure kultura. Eta ez

dute balio, ez Eusko Jaurlaritzak, ez Kultur sailburuak. Izan ere, horien erantzunak betikoak dira eta ez digute balio. Hortik ez dugulako ezer lortuko, aspaldiko fundamentu eta bizio asko dagoelako. Hainbat urte bidean eman dugunok badakigu zer dagoen hor, eta garbi daukagu erantzuna ez dagoela hor. Beraz, saiatzen ari gara beste bide batzuk jorra-

tzen; ea zer edo zer lortzen dugun.

—Asmoa aurreratuta daukazue?

—Beno, behintzat proiektu bakoitzean sekula baino jarrera irekiagoarekin azaltzen gara eta horrek asko errazten du, azken finean, guztiok sartuta baikaude erritmo berean, eta ikusten dugu zer daukagun gizartean, egunerokoan. Erantzuna guk eman behar dugu, ezin gara zain egon goi-mailatik beste batzuek zer proposatuko diguten; horrekin ez dugu ezertxo ere egingo.

—Gari, inoiz musikarekin nazka zintezke edo nazkatu zara?

—Ez, ez. Gainera, alabatxo bat daukat,

11 urtekoa, eta gitarra jotzen du. Musikalki beste gauza batean dago; musikarekin bere harremana lortzen ari denez zure burua ikusten duzu beste era batera. Hertzainak-en garaian, esaten genuen: *vade retro!* Baina orain ikusten zara askoz ere, hitz oso zatarra eta min ematen badit ere: pedagogikoagoa. Eta musika orain ez dut ikusten bakarrik gitarra hartu eta jendaurrean jotzeko, baizik eta tresna bezala gauza gehiago egiteko, eraikitzeko. Bestela, musikak ez dauka zentzurik. Hemen, trantsizio garaian, Ez Dok Hamairu eta talde horiekin ere ikusten zen. Gizartea-rengana nola iritsi, ideia batzuk guztion artean zabaldu eta eraiki; hori da. Gaur egun giro oso berezia dago eta erantzun zuzena eman behar dugu.

—Gari mitifikatu egiten da sarritan?

—Bai, gehiegi. Gainera, ni desastrea naiz betidanik. Hertzainak desastrea ginen talde bezala, bakarlari nintzela ere desastrea. Atzera begiratu eta ikusten duzu norberaren ibilbidea izan dela, argia baino, ilunagoa. Azken urteotan buru-belarri sartu naiz beste linea batean, oreka bilatuz; arlo musikalean ere bai. Izan ere, betidanik izan naiz nahiko txoriburua. Txikitan, amamak esaten zidan: "*Edadea hartzerakoan, akaso, apalduko zara*"; eta ke ba! ○

Mendi artean galduta, baina Legazpi oso modernoa zen

—Hasieran nor zenuten inspirazio-iturri, Benito Lertxundi eta horiek?

—Ez eta bai. Benito, Xabier Lete, Mikel... Garai hartan, iparraldetik ekartzen genituen diskoak, ondo gordeta. Orain harritzen naiz txikitan Xabier Leteren diskoak gustuko izana, oso tipo iluna zelako Lete.

—Eta zelan zen, baserri batean elkartzen zinetela atzerriko taldeen diskoak entzuteko?

—Zortea izan genuen. Legazpi oso herri txikia da, mendi artean dago, baina bazeukan enpresa bat oso handia, erraldoia: Patricio Etxeberria. Garai

hartan Legazpik 11.000 biztanle inguru zituen, eta horietatik, 3.000 batek lan egiten zuen Etxeberrian. Beraz, kontuak atera! Enpresa hartako hainbat ingeniari, gainera, alemaniarrak ziren. Euren seme-alabak gazteak ziren, baina ez ziren euskaldunak, ezta euren itxurak ere. Franko oraindik bizirik zegoela, eurek kristoren ile luzeak zeuzkaten, eta neskek eramaten zituzten minigona laburrak eta takoi handiak. Bilbora joan eta bueltan flipatzen nuen, Bilbon horrelako gutxi ikusten nuelako. Eta eurek bazeuzkaten hemen saltzen ez ziren disko pilo bat. Beren eskutik,

baserri batean sortu genuen horrelako gune kultural bat, eta bageneuzkan disko zoragarriak. Musika hura irratian ere ez genuen entzuten eta irrika sartu zitzaigun. Talde bat sortu genuen kuadrillan eta, kasualitatez, kontzertu batean Hertzainak-ekin elkartu ginen. Euren artean ez zeukaten oso harreman ona eta eurakaz hitzordu bat egin nuen. Erabaki nuen Gasteizera joatea, eurekin buru-belarri sartu nintzen. Asko sufrituz, nik 18 urte neukalako eta eurek hamar bat gehiago; beraz, gauza askotarako oso galduta nengoen, baina oso gustura; azkenean, bizi-esperientzia izan zen.



Geografia lekukotzak

Geografian lizentziaduna bada ere, txikitatik kamera eskuan izan duela azaldu digu Endika Martinez Albonigak (Leioa, 1982). Azken urteotan bideo-errealizazioan dihardu, baina argazki-kamerari ere gogor eutsi zion orain dela urte batzuk, gaur egun bideoek harrapatuta badute ere. Izan ere, utzi dizkigun argazki-bilduma honetako irudietako gehienek badituzte urte batzuk; horietan aurkitu ahalko dituzue Martinezen begi zorrotzen noizbaiteko geografien lekukotzak...

Argazkiak: **Endika Martinez Alboniga**







Iparra eta Hegoa, elkarguneak eta desberdintasunak

Euskarak elkar gaitzake, baina, badago benetako borondaterik?

Getxoko Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan, Xabi Paya eta Odei Barroso bertsolariak Iparra eta Hegoaren arteko elkarguneez, desberdintasunez eta eraiki beharreko zubiez aritu ziren Algortako Fadura kiroldegiko kafetegian. Eztabaidaren ostean, bertsolari bizkaitarra eta lapurtarra bertsotan aritu ziren.

Zelan ikusten da Iparraldea Hegoalde-tik? Edo Ekialdea Mendebalde-tik? Zerk bereizten gaitu eta zerk hurbiltzen gaitu Iparraldeko eta Hegoaldeko euskal herri-tarrok? Galdera horiek euskaldunon bu-ruan bueltaka dabilta nonbait, eta horiei erantzuna eman nahian, Iparraldeak eta Hegoaldeak partekatzen dituzten elkargu-nee, urruntzen dituzten bideez eta eraiki litezkeen zubiez aritu ziren Odei Barroso eta Xabi Paya urriaren 30ean, Algortako Fadura kiroldegiko kafetegian, Iparra Gal-du Gabe jardunaldien baitan. Biak ala bi-ak bertsolariak dira, baina bertsolaritzako- ez gainera, bestelako bizipenez baliatu zi- ren Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko ezberdintasunei eta elkarguneei errepara- tzeko, horien gainean hausnartzeko...

Lehenengo eta behin, Payak hego- mendebalde-tik, edo “ondo begiraturaz ge- ro” iparralde-tik, hau da Bizkaitik, Ipar Euskal Herria zelan irudikatu ohi dugun aztartzeko, iritziak estereotipoetan eta ar- ketipoetan oinarritzearen arriskuaz ohar- tarazi zuen. “Existitu gabe, zaila iruditzen zait. Baina, existituta nola ikusten dudan? Adjektibo bat erabilita, niretzat exotikoa da Iparraldea”. Ipar Euskal Herria ezberdina da bere ustez, “dena da sugerentea, ezberdi- na, ezagututa erakarri egiten du”.

Bi Euskal Herrien artean muga bat



Odei Barroso eta Xabi Paya Iparraren eta Hegoaren arteko aldeez eta erronkez aritu ziren Faduran

dagoela uste du Odei Barrosok, baina ez edozelakoa, “muga politiko bat dagoen edo ez eztabaidagai dago, baina bereziki nik ikusten dudana da muga mental bat dago- ela. Hor badago zerbait banatzen duena”.

Naziogintzan beti agertu izan dira bi gauza: hizkuntza eta lurraldea

Muga mental horiek ez dira agerikoak egunerokotasunean, ez dira ikusten, “ez dira inposatuak; baina inposatuak izan zi- relako ditugu orain gure buruan”. Muga ez dago hain presente fisikoki, baina erreali- tate “biziki diferenteak” daudela aitortzen du Barrosok.

Urruñarrak Hegoaldea zelan ikusten duen galdetuta, berriz, gauza guztiekiko distantzia hartu behar dela azaltzen du,

kanpotik begiratuta: “euskaldun bezala egia da bi errealtate daudela Iparra eta Hegoaren artean, baina Nafarroa eta EAE ere bi mundu dira”. Halaber, estereotipo- etara joz gero, iparraldekoek hegoaldeaz zera pentsa dezaketela dio Barrosok: “berandu bazkaltzen dute, telebistako pro- gramazioa berantiarra da eta oso zarata- tsuak dira”.

Hizkuntzak batzen gaitu?

Argi dago Iparra eta Hegoaren arteko e- rrealitateak ezberdinak direla, baina bada- go zerbait lotzen dituen ere. Paya bene- tan zerk elkartzen gaituen pentsatzen hasi eta ikaratu egiten da: “hizkuntza konpar- titzen dugu, baina benetan elkartzen gaitu? Hizkuntzak elkar gaitzake, baina ez dakit benetan hori ote den borondatea. Ba al da- go borondaterik?”.

Nazio eraikuntzan, hizkuntza da lotu-



Bertsolaritzakoez gainera bestelako bizipenez baliatu ziren gaiari heltzeko

retako bat. Algortarrak azaldu legez, Eus- kal Herriaren nolabaiteko naziogintzan lan egin dutenek mila estrategia erabili dituzte batasun hori azaltzeko: foralis- moa, erlijioa, karlistadak... Baina beti agertu izan dira bi gauza: hizkuntza eta lurraldea. “Lurraldea agian ez erabat zaz- pi probintziakaz, baina lurra eta hizkunt- zaren arteko lotura bada historian beti pre- sente izan den zerbait”. Barrosorentzat, gainera, alde bateko zein besteko herrien arteko elkartrukeagaz, elkar konpartitzea- gaz puntu komunak atzeman daitezke.

Herrien arteko elkar konpartitzeagaz puntu komunak atzeman daitezke

Erreferente globalak vs lokalak

Euskarak elkar gaitzake beraz, baina, eus- kal iruditeria edo imajinarioa parteka- tzen? Askotan erreferente ezberdinak di- tugu Bidasoaren bi aldeetan. Horren adi- bide garbia ematen dute alde bateko zein besteko umeek. Barrosoren esanetan, “ez dut uste inola ere umeek erreferente berdin bat botako luketenik, ez bada Messi, Ro- naldo edo kanpoko horrelako besteren bat.

Ez dago Euskal Herrian dugun erreferente bat”. Hala, Messik elkartzen ditu bi alde- ak? Payaren ustez bai, “baina baita argen- tinarrak eta japoniarrak ere”. Oso erraza da kultura globaleko erreferentzietara jo- tzea tokiko kulturara baino, “ez garelako kultura lokal berean bizi”. Algortarrak euskal herritarren iruditegia hornitu beharra dagoela uste du, “konpartitzen dugunak izan behar du gure identitatearen kalitatea definituko duena”. Izan ere, bere ustez, nazio bereko kide izateko lehenda- biziko gauza bat da ezinbestekoa: “nahi izatea”.

Bertso-eskolak, tresna gisa

Bertsolaritzaren alorrean, bertso-eskolen jarduna badirudi antzekoa dela Iparralde- an eta Hegoaldean. Barrosoren esanetan, Ipar Euskal Herriko bertso-eskolen fun- tzio nagusia ez da bertsolariak sortzea, “bertsoagaz oroitzapen on bat sortzea eta eskolaz gaingiko aktibitate bat euskaraz egin ahal izatea da helburua”. Hegoaldean ere gauza berdina gertatzen dela aitortzen du Payak: “bertsolaritza beti erabili izan da tresna gisa. Bertso-eskolak badira bertso- tan ikasteko, euskaraz bizitzeko, baina ez dira bertsolari-fabrikak”. ◊

Bertsoak

Gaia: Zubiak

Depresioak jo baino lehen, ai
ene jaungoiko maitea
gaia zubia jarri digute
ene nolako nekea
ez dakit ez ona ote dan
sortzeari ekitea
edo ez genukeen hobe
zubitik salto egitea. (bis)

Xabi Paya

Hainbeste hitzek kezka jarri dit
orain pentsatu hor konpon
hartu trago bat, hartu pintxo bat
eta bertsoei itxaron
ongi dakigu zubien hori
egitea dugulako
baina gu erortzen baldin bagara
hobe aspian ez egon. (bis)

Odei Barroso

Baina zubiak eraikitzea
orduan ez da problema
nola aurkitu hego eta ipar
elkartuko gaituena
Portugalete eta Areeta
elkartzeko gai badena...
hobe guk sortzen ez badugu ere
munduko zubi luzeena. (bis)

Xabi Paya

Hamaika zubi ikusi eta
dut jarrera urduria
nik guztiak gris ikusten ditut
ez beltza ala zuria
argi dezagun zein dugun kezka
eta zein den irudia
zeren gainetik pasatzeko egin
nahi dugu gure zubia. (bis)

Odei Barroso

Bale orduan kasi hobe da
ezerez ez aurkitzea
eta leku hortan jarri dezagun
hego eta iparran etxea
gaur argi dago ez dugula nahi
Iparraldea gaitzea
orain bakarrik falta da zuek
Hegoaldea aurkitzea. (bis)

Xabi Paya

Hau aurkitzeko errazaidazu
zein da bidea, zein senda
hasierako gaitz erroturik
ez ginteke erraz senda
nahiz eta buruan orain daukadan
nik kriston zubi zerrenda
hona etortzeko dagoen zubia
ja A8 deitzen da. (bis)

Odei Barroso



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Euskal Zine Bilerak

Lekeitioko hitzorduak 37. ekitaldia izango du aurten, **hilaren 23tik 29ra**



Info+: www.zinebilera.com

Lekeitioko Euskal Zine Bilerak dena prest dauka azaroaren 23tik 29ra bitarteko hitzordurako; eta pozik dabilta, azaldu dutenez, “*sekula baino film gehiago aurkeztu dira; iaz, euskal zinearen jaialdiak marka guztiak apurtu bazituen, aurtengo partehartzeak harritu egin*”, gainera, “*lehiaketaz gain, aurtengoa edizioak bileraren adiera indartuko du, azaroaren 29an euskal zinemagintzaren inguruko jardunaldiak eskainiz*”. Hala, jakinarazi dutenez, 59 film aurkeztu dituzte, eta horietatik 48 aukeratu ditu hautespren-batzordeak: 30 lan amateur eta 18 lan profesional; “*Filmak Euskal Herriko lurralde osotik heldu dira. Profesio-*

onalen sailean 18 film aurkeztu dira. Gipuzkoatik 9 lan, Bizkaitik 6, Lapurditik 2 eta Nafarroa Beheretik 1. Amateur sailean aldiz 30 lan aukeratu dira. Bizkaitik 18, Gipuzkoatik 8, Arabatik 3 eta Nafarroatik 1”. Lehiaketak bi kategorietako bakoitzean, profesionalena eta amateurrena, Zuzendaritza, Ekoizpena, Gidoia eta Argazkia arloak sarituko ditu.

«Zinemagintzaren jardunaldiak eta Antzar Morea saria nobedade»

Profesionalen sailean, arlo bakoitzeko 1.600€ eta zilarrezko antzara dira sariak; amateurrean, berriz, 1000€ eta zilarrezko antzara. Horrez gainera, Film Onenaren saria ere emango dute profesional eta amateurrenetan: lan profesionalak 1.900€ eta urrezko antzara jasoko dute eta amateurrek 1.300€ eta urrezko antzara; Euskal zinegile gazteei begirako Gazte 22 saria (600 euro) ere banatuko dute, eta aurten lehenengoz, genero ikuspegia ondoen txertatzen duen lana sarituko du Antzar Morea sariak (500 euro). Azaroaren 23an izango da euskara hutsez egiten den zinemaldi bakarraren aurkezpen-ekitaldia, azaroaren 24tik 28ra filmen emanaldiak (19:30, Ikusgarri aretoan), eta jardunaldia eta amai-ekitaldia hilaren 19an. ○

Bilbo Hiria lehiaketa

Daborduko badakizkigu **irabazleak**: The Wizards, The Saur, Music Comite eta Eate



The Wizard eko taldea, Metaleko irabazleak. Info+: www.concursovilladebilbao.com


Hilaren bigarren aste akabuan izan ziren Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketako finalak Bilborock aretoan. Sailez sail, ondorengo taldeak lehiatu ziren oholtza gainean: Elektronika eta Beste Joera Batzuk sailean: Empty Files (Bizkaia), Huias (Asturias), Morsky Les (Bizkaia) eta Music Komite (Cadiz) taldeak; Metalean, berriz, hiru talde bizkaitar: The Wizards, The Descent eta Highlights; Pop eta Rock sailean hauek: The Saur (Katalunia), Frank (Gipuzkoa) eta The Puzzles (Kantabria).

Hala, podiuma horrela lotu zen: Metalean, The Wizards lehenengoa, Highlights

bigarren, eta The Descent hirugarren; Pop-Rock sailean, The Saur lehenengoa, Frank bigarren, eta The Puzzles hirugarren; eta Elektronika eta Beste Joera Batzuk sailean Music Komitek irabazi zuen. Lehiaketan ustekabeko maila eman duen taldearentzako saria, 1.100 euro, Eate bizkaitarrekin lortu zuten. Pop-rock eta metal kategorietan ondoko sariak eskuratu zituzten talde horiek: lehenengoak 5.000 euro jasoko ditu; bigarrenak, berriz, 2.500 euro; eta, hirugarrenak, 1.200 euro; bestalde, Elektronika eta Beste Joera Batzuk sailean, sari bakarra dago, irabazlearentzat 2.200 €. ○

diskoak

Nire bihotzak zure...
Gontzal Mendibil
Elkar



Ia 40 urte euskal sentimendu lirikoari eskaini dizkio Zeanuriko kantariak, eta 14. diskoa plazaratu berri du: *Nire bihotzak zure begiak ditu*. Horretan, “bere barruan hiltzaturik dauden oroitzapenak, bizitzaren go-ra-behera gazi-goza, giza-kumearen nondik-norakoa lur honetako pasadizoan, Euskal Herriari eskainitako hats maitekorraz bildurik”.

Akatsa Sisteman
Lurra
5Gora



Ane Garcia eta Iñigo Muguruz buru dituen taldearen bigarren lana kalean da. Oraingoan hainbat lagun izan dituzte kolaboratzaile: Xabi Solano, Petti, Maite Neighbor, Jon Elizalde Jontron, Sergio Patxuko, Oskar Benas, Xabi Dols e.a. “*Soinu akustikoaren arrastoan, indiefolk, world, blues, reggae, ragtime, ska, jazz edota dub doinueta*” dabilzala diote adituek.

Hegalak astinduz
Hesian
Baga-Biga



Seigarren lana plazaratu du, oro har, Sakanako kidez osatutako taldeak. Adituen esanetan, “*soinuari dagokionez, aldaketak dakartza lan berri honek... sortze prozesu luze baten emaitza da*”. Gitarra-jotzaile berria du taldeak eta rockaren aldeko diskoaren apustuan bere eskua nabari dela diote; Zuriñe eta Franek idatzi dituzte letrak.

REBEL TATTOO



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Lizardi saria

Zarauzko idazlearen omenezko sariketa, **haur ipuin-lehiaketa** abian da

Xabier Lizardi, Jose Maria Agirre Egaña berezko izena (Zarautz 1896-Tolosa 1933), idazle zarautzarrari gorazarre egingen dion sariketa abian da. Lizardiren jaioterriko udalak antolatuta, XXXIII. ekitaldia izango du aurten haur ipuin-lehiaketak, eta lanak bidaltzeko epea daborduko zabalik dago, urtarilaren 12ra arte.

Lizardi sariak *“Haur eta Gazte Literatura sustatzeko helburua dauka”*, adin tarte horretako hartzaileei begirako lanen sor-kuntza bultzatzea; izan ere, sariketan parte hartu ahaliko duten egileek 18 urte-tik gorakoak izan behar dute.

Horrenbestez, hartzaile horiek buruan, eta kontuan hartuta gaia librea dela, bestelako betebeharrak eta baldintzak, ondorengoak dira: jatorriz euskaraz id-

«Lanak aurkezteko epea zabalik dago daborduko, urtaril artean»

tziak izatea; originalak, argitaratu bakoak, eta beste inolako lehiaketatan saritu bakoak izatea; partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake; makinaz edo ordenagailuz idatziak izatea; lerro artean tarte bikoitza utzita, A-4 neurriko orrietan; 24.000 karaktere baino gutxiagoko lanik ez da onartuko; lan bakoitzaren ale



Jose M. Agirre Egaña, Xabier Lizardi (1896-1933)

bat bidaltzea, ongi josia, zenbakitua, koa-dernatu gabea eta era soil batez tolestua, izengoitiz sinatuta; gero aparteko gutun-azal itxi baten barruan adieraziko dira egi-learen ohiko datuak. Hori dena bidali beharko da helbide honetara: Zarauzko Udala – Kultura-Saila, Sanz-Enea Kultur Etxea, Nafarroa kalea 22. 20800 Zarautz, edo e-posta: kultura@zarautz.org.

Saria, bakarra, 3.700 eurokoa da, eta lana argitaratzea (2.500 ale). Hori zeinek jasoko duen erabakiko dute Jesus M. Olaizola *Txiliku*, Miren Agur Meabe, Iñaki Frieria eta Iñaki Olasagastik. ○


Info+: www.kulturazarautz.org

liburuak



Beltzuria
Ixiar Rozas
Pamiela

“Zer gertatzen da ahotsaren espazioan. Zer, ahotsa desagertu aurretik; eta ondoren? Hitzaren eta esanahiaren erreinuak itzala egin dio ahotsari... Beltzuria ahotsaren espazio politikoaren inguruko gogoeta da”, hala azaldu dute Lasarte-Oriako idazlearen azken lana.



Dalloway Andrea eta...
Virginia Woolf
EDO!

Virginia Woolf-en *Dalloway Andrea* eta *Emakumeen lan-bideak* edo *Etxeko Aingerua* hiltzea euskaratu dituzte Itziar Diez de Ultzurrun eta Ana I. Moralesek. Idazle modernistari esanguratsu eta pentsamendu feministaren Europako aitzindarietakoaren lanon azala Eider Salaberriak egin du.

[kirola]

Ander Mendiguren Nebreda > surflaria

“Hurrengo urtean Europako WQS zirkuituan parte hartu nahiko nuke”



Elastikotasuna eta fisikoa lantzeko jiu jitsua praktikatzen duela aitortzen du lemoiztarrek

Ander Mendiguren lemoiztarrek Euskal Herriko Surf-Txapelketa irabazi zuen urriaren 26an. Euskal Herriko Zirkuituan murgilduta dago une honetan, eta aurreneko proba biak burutu ostean, zain dago hirugarrena egiteko: Mundakakoa.

—Euskal Herriko Surf-Txapelketan nagusitu zinen Donostiako Zurriola hondartzan. Zelakoa izan zen eguna?

—Olatu bikainak egon ziren, bi metro ingurukoak. Niretzat hori oso ona zen, 85 kilo pisatzen ditut, eta olatu handiek ni bezalakoentzat egoera ezinhobeak eskaintzen dituzte. Lehenengo txandan oso gustura ibili nintzen, eta gairitu nuen. Bigarrenean, apurtxo bat gaizki pasa nuen, baina gero finalaurrekoetan oso ondo egon nintzen. Finala Norman Landaren aurka aritu nintzen, bi olatu on hartu nituen eta irabazi nuen. Ez zen erraza izan, baina azkenean zortea izan nuen.

—Espero zenuen emaitza izan da?

—Irabaztea beti da sorpresa bat, bakar batek irabazten duelako.

—Hala ere, ez da lehen aldia horrelako emaitza on bat lortzen duzuna...

—Ez, egia esan, Euskal Herri mailan beti lortu izan ditut emaitza nahiko onak. Iaz Euskal Herriko Zirkuitua irabazi nuen. Aurten, lehenengo proban hirugarren gelditu nintzen, Sopelan; ondoren, Zarautzen, bigarren. Momentuz lehenengo postuan nago, baina Mundakako proba falta

«Oso garestia da Europako WQS zirkuituetan aritzea, sponsorrak behar dituzu»

da. Izan ere, zirkuitu horretan hiru probetatik bakarrik bik kontatzen dute. Hortaz, Mundakan ondo egin behar dut zirkuitua irabazteko.

—Aurrera begira zeintzuk proiektu edo lehiaketa dituzu buruan?

—Disfrutatzea eta ikasketakaz jarraitzea. Europako WQS zirkuituan aritu nahiko nuke. Surfean profesionala izateko WQS-ak egin behar dituzu, eta hurrengo urtean horretan parte hartu nahiko nuke, baina oso garestia da... ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

MySurfWall

Itsas kirol zale hori,
behar duzun informazio guztia
atari honetan:

www.mysurfwall.com
Sartu!

Berbodromoa 2014

EUSKARAREN EGUNA
Abenduak 3

Altzagako Azoka Zaharrean
Goizeko 10:00etan

Txokolatea eta bizkotxoak
parte-hartzaile guztientzat



ANTOLATZAILEAK:

BABESLEAK:



Josebiñe Aranaga Etxebarria > euskara-zinegotzia

“Gure erronka ezagutza handitzen jarraitzea da, eta batez ere erabilera”

Josebiñe Aranaga Etxebarria erandioztarra da sortzez. Administrarria izateko ikasketak burutu zituen eta, Erandioko euskara-zinegotzia izan baino lehen, eskola bateko sukaldari lanetan jardun zuen. 25 urte inguru eman ditu bere auzoko elkartean lanean, eta horrek ahalbidetu zion Erandioko Udalagaz harreman zuzenak izaten, *“herriko autobusen, saneamenduen eta herriko lokalen inguruan eztabaidatzen, esate baterako”*. Horren ondorioz, politikarako jauzia ematea erabaki zuen, eta daborduko zazpi urte darotza zinegotzi lanetan tokiko Udalean.

—Zeintzuk dira euskararen ahuleziak, indarguneak eta erronkak Erandion?

—Azken hamarkada hauetan Erandion bizi den euskaldunen kopurua hazten joan da, baina ezagutzaren handitze horrek ez du ekarri euskararen erabilera soziala areagotzea udalerriko kaleetara, eta horixe da gure kezkarik handiena.

Erandion bizi diren neska-mutil gazte gehienek udalerriko ikastetxeetan burutzen dituzte euren ikasketak, euskal eredu-etan, eta gero eta guraso euskaldun gehiago ditugu gurean. Egoera hori oso positibotzat jotzen dugu Erandioko Udalean.

Gure erronka nagusia udalerrian euskararen ezagutza handitzen jarraitzea da; baina batez ere, euskararen erabilera soziala areagotzea, Erandioko kale eta enparantza guztietan, aisialdian, Udalean eta kirolean, besteak beste.

—Hori lortzeko egitasmorik baduzue?

—Bai, noski, gure lana hori da, euskara sustatzea Erandion. Izan ere, ditugun Udal Erabilera Plana eta Euskararen Plan Estrategikoan oinarrituta burutzen ditugu egitasmo guztiak. Aipatutako egitasmo



Josebiñe Aranaga, Erandioko zinegotzia

horietan guztietan, Euskara Zerbitzuaren helburuak islatzeaz gain, helburu horiek lortzeko neurriak eta ekintzak jasotzen dira, eta horiek betetzen eta ebaluatzen saiatzen gara.

—Eta erabilerari dagokionez, baduzue ekimenik edo proiekturik martxan?

—Bai, egitasmo eta proiektu ugari jarri ditugu martxan azken aldian Erandioko

“Euskaldunen kopurua hazi den arren, euskararen erabilera ez da areagotu kaleetan”

kaleetan euskararen erabilera sustatzeko asmoagaz. Gainera, proiektu eta egitasmo ugari udalerriko hainbat eragileguz elkar-lanean jarri ditugu martxan, esate baterako, besteak beste: Berbalagun egitasmoa, familiaren arteko transmisioa sustatzeari begirakoak, aisialdian euskara sustatzekoak eta lehiaketak. o

Erandio

Biztanle kopurua
EUSTATEk bi urtetik gorako biztanleak hartzen ditu:

2006an, 23.844 biztanle

2011n, 24.175 biztanle

Euskaldunak

5.937 euskaldun, %24,9 (2006)

5.705 euskaldun, %23,6 (2011)

Ia-euskaldunak

5.885 ia-euskaldun, %24,68 (2006)

6.766 ia-euskaldun, %28,03 (2011)

Erabilera datuak

Kale-erabilera %1,3 (2011)

Harremanetarako:

944 890 128

euskara@erandioko-udala.net

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.

Especialistas en
desayunos
abrimos desde las
07:00h.
y 08:00h. los fines de
semana y festivos

C/Iturbixi, 13
48620 Plentzia
Telf: 94.677.31.28
www.cafebarzuazu.com

Café-Bar
Plentzia

berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

fugu

Bat batean eginda japoniar eta tradizionalen
www.fugulasarenas.com

Evaristo Churrua Kalea 2 (Ionia) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa

LURZEN

GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

KAI EDER
J A T E T X E A

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com

ABIAN
HERRIKO TABERNA

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

txakoli
mota
gane
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

GURE
ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

TABERNA
Unai
JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA. 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

TABERNA
Ekin
JATETXEA

CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462

portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

BODEGUILLA
BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxo**tan**]

Onddoak eta galeperra

Udagoienerako pintxo fresko-freskoa



Pintxo Algortako Unai tabernan daukagu

Akabo eguzkipean zintzurak bustitzea. Udagoien gordinen sartu gara bete-bete-an, hotzagaz eta euriagaz. Hori dela-eta, Algortako Portu Zaharra alde batera utzi, Aretxondoko aldapa igo eta Algortako E-torbidean dagoen Unai taberna aukeratu dugu oraingoan babestoki bezala. Tabernara sartu bezain laister, pintxo betetako barragaz egin dugu topo, koloretsua, garagardo bat zein ardo bat laguntzeko mokadu proposatzeko. Gaurkoan, sasoiagaz lotutako pintxo aukeratu dugu, udagoienera azaltzen diren onddoak egindakoa. Tokiko sukaldariaren arabera, horrelako pintxo bat egiteak ez du misterio handirik; animatuko zara?

Lehenik eta behin ogi xerra bat hartu eta txigortuko dugu. Horixe izango da

pintxoaren oinarria. Ondoren, onddoak salteatuko ditugu eta ogiaren gainean jarriko ditugu. Jarraian, lapiko bat hartu, urez bete eta berotuko dugu. Ura 70 edo 80 gradu artean dagoenean, galeper arrautza baten gorringoa bota eta kanpotik erdi mamituta dagoenean atera eta onddoen gainean utziko dugu. Horren ostean, foie-gras freskoa hartu eta pintxoaren gainetik birrinduko dugu, apurka-apurka. Azkenik, maldon gatza eta piper-hautsa botako diogu mokaduari, gustuaren arabera. Hala, prest izango dugu udagoienerako pintxo ezinhobeak. o

Osagaiak: ogia, onddoak, galeper-arrautza, foie-gras freskoa, maldon gatza eta piper-hautsa.

Croissanterie
Brioche

MONTE JAIA 1
48991 Getxo (BIZKAIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com

94 460 86 48

uk **zure**
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Uuribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Liburu bat oparituko dizute. Oso literatura-zalea ez zara, eta mespretxu ez egitearren, irakurtzen hasiko zara, baina lortu ez. Filma ikusi behar, galdetuko badizute.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Negozio barria abiatuko duzu. Urduri zaude, baina gogotsu eta indartsu zabilta. Horregatik, egoera zaila bada ere, arrakasta lortuko duzu apurka-apurka. Beraz, ez etsi!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Aspaldiko partez, aurrekoan zinemara joan zinen, eskaintza bat baliatuz. Gustatu eta ordutik astero ikusten duzu pelikularen bat. Urteko bonua erosi beharko zenuke...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Uda luzea izan da eta lamiak legez ibili zara uretan maiatzetik hona. Orain, barriz, freskatu du eta hondartzarako denboraldia amaituko duzu. Laster hasiko zara ur-beharrez.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Hostoak jauzi dira eta hotzari aurre egiteko bakar-bakarrik lotu zara zuhaitzean, gure hosto maitea. Udabarrira arte eutsi behar; txoriek habia egingo balute zure alboan!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ikasgelan poesiari buruzko proiektu bat garatzen ari zarete: olerkiak telefono mugikorren mezuetan bidaltzea. Arrakasta lortuko duzue eta institutu osoa zaletuko da poesiagaz.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Auzokidearen txakurra zaunka eta zaunka dabil, gau eta egun. Kokoteraino zaudenez auzokoagaz hitz egingo duzu, baina kasurik ez dizu egingo: ezko-tapoiak erosi beharko...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Datorren astean azterketa oso zaila egin behar duzu eta urduri zaude, nahikoa ikasi ez duzulakoan. Lasai egon, oraindino garaiz zaude: egutegia planifikatu eta ekin lanari!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Egunak laburtu direnetik goibel zabilta, kalera urteteko eta planak egiteko gogo barik. Pentsatu gauak ere badaukala xarma, bihurrikeriak egiteko aproposak dira, beraz: animatu!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Laster hitzaldia emongo duzu kultur etxean, baina sekula ez zara jardun jendaurrean eta urduri zaude. Gura baduzu hartu tila bat edo beste, baina ez egin txorakeriarik, arren.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Ezagun batez mendira joango zara, eskalatzen irakatsiko dizu-eta. Inoiz ez zara izan trebeegi, baina oraingoan, fin arituko zara, eta gainera, gozatuko duzu. Baietz errepikatu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zapatuan jaia egingo duzu lagunakaz. Polit-polit jantziko zara, baina ekaitzak jo eta blai amaituko duzu. Hurrengoan ez emon hainbeste denbora zure burua prestatzen; edo hartu aterkia!

Beren bidez etorri.
eta beren esmutan joaten.

Laura Siles, 2014

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Gogoan har egi zu: 1etik 9ra arteko zenbaki denek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki guztietan.

		2	4			8		9
5			6			2		
	6	8		7	1			3
3					8		7	4
			9		5			
4	1		7					2
8			5	6		3	9	
		9			4			8
7		1			2	6		

2			1					3
	6	5			8	9	7	
	1		7	6			8	
	9			1		3		8
		3	6		2	7		
4		2		3			5	
	2			9	6		3	
	3	7	8			5	4	
8					5			2

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Noiz da Euskararen nazioarteko eguna?

- Abenduaren 24an
- Azaroaren 3an
- Abenduaren 3an

La Gusana liburudenda SARIA
Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Suedian
> Irabazlea: **Miren Latorre***
*deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA *Oinutsik*
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, Sopela
Tf. 944 047 420
oinutsik@euskalnet.net 

> Aurrekoaren erantzuna: Komiki eta Manga azokak
> Irabazlea: **Maria Begoña Etxebarria***
*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



JOSE ANDRES GONZALEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

PORTU ZAHARREKO FUTBOL-TALDEA, 1946

Ereaga hondartzan, betetze-lanak egin osteko orubean, futbol-txapelketak egiten ziren; gerora, atletismokoak ere bai. Auzoz auzo osatzen ziren parte hartzen zuten taldeak, hala: Algortatik lauzpabost talde, Sarrikobaso, Hezetasuna, Salsidukoek eta abarrek osatzen zituzten, bakoitzak zegokion auzokoa. Argazkiko taldea Portu Zaharrekoa da, eta txapelketa horiek antolatu ziren lehenengo urtekoa; gainera, urte hartan, txapeldun izan ziren. Txapelketaren azken urteetako partidak Faduran jokatu ziren 70. hamarkadan. o

Zutunik: Agustin Martinez “Pipas” (GB), Valero San Martin (GB), Juan Basterretxea “Juanero” (GB), Pedro Mari Royo, Martin Royo (GB), Jose Herran (GB) eta Juan Marinez “Morongo” (GB).
Makurtuta: Joaquin San Martin, Juan Santos Gajate “Juanillo”, Angel Irureta “Txirrina” (GB), Eloy Batiz (GB) eta Ramon San Anton “Ramone” (GB).

MAITE ARROITAJAUREGI ARANBURU > Mursego taldea

“Japonian gura nuke kontzertu bat emon, erreakzioak ikusteko”

Testua: Iker Rincon



- Defini ezazu zeure burua berba bitan.**
Kanguro boxeolaria
- Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**
Kaurismakiren edozeinetan.
- Zure haurtzaroko oroitzapen bat?**
Hondarribiko hondartza.
- Badaukazu ohitura txarren bat?**
Desordena.
- Eta aitor dezakezun bizio bat?**
Txokolatea.
- Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?**
Anbotopea, Axpe; Hondarribi, Baztan... Oroitzapen onek lotzen naute toki horiekiko.
- Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**
Bai, hirugarrenez Berlinera.
- Kolore horia, bai ala ez? Zergatik?**
Ez, nabarmenegia da nere gustorako.
- Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?**
LOMCEren indargabetzea eta hezkuntza sistema berri baten agerpena.
- Non gura zenuke kontzertu bat emon? Zergatik?**
Japonian, japoniarren erreakzioa aztertzeko.
- Kontzertuak emateko lekurik onena?**
Leku txiki bat, gaztetxe bat, adibidez.
- Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?**
“Iraganik gabeko emakumea” kantuarien letra azaldu nuen batean, eta publikotik ume batek galdetu zidan ea kantuko emakume horrek alzheimerra zeukan.

LABURREAN—Maite Arroitajauregi Aranburu (Arrasate, 1977) Mursego taldeko abeslaria eta musikaria da. Biolontxeloko goi mailako ikasketak burutu zituen Gasteizeko Goi Kontserbatorioan eta denbora luzea eman du hainbat taldetan kolaborazioak egiten, hala nola: Gora Japon, Kokein, Kashbad edo Anarigaz. Hala ere, 2009an bakarlari bideari ekin zion. Gaur egun hainbat proiektu ditu eskuartean: Gloria Fuertes-en poema musikatuena lana aurkeztea, *Hiru* diskoaren aurkezpenak bukatzea eta *Zuhaitza erortzean* film luzearen musika konposatzea Javi Pezegaz batera. Azaroaren 29an Berango Antzokian entzun ahal izango dugu, 19:00etatik aurrera.

91 506 53 58 / www.renault.es

RENAULT CAPTUR
HARRAPATU BIZITZA



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,6tik 5,5raino. CO₂ isuria (g/km) 95tik 127eraino.

Renault gomendatzen du 

DRIVE THE CHANGE 

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

Bakarrik horrela gorde
ahal izango duzu
jardunaldien programazio
osoa zeure buruan!

61 egun eta
30 ekitaldi baino
gehiago euskaraz



azaroa/noviembre
abendua/diciembre
2014
getxo

Euskal Kulturaren XVI. Jardunaldiak
XVI Jornadas de la Cultura Vasca

euskara saria, bizilagunak, argihizkiak
erakusketa, book trailer lehiaketa,
musika, antzerkia

www.getxo.net/euskara



XXXI
Eskulangintza Azoka
GETXO
Feria de Artesanía
2014



AZAROAK 28 - 29 - 30 NOVIEMBRE

11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00

(Larunbatetan / Sábado: hasta las 21:30ak arte)

AREETAKO GELTOHIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
SARRERA DOHAIRIK ENTRADA GRATUITA